



EKONOMIAKO GRADUA

2016/2017 KURTSOA

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK: AUKERAK ETA MUGAK

Idazlea: OLATZ ROMÁN BLANCO

Zuzendaria: EDUARDO BIDAURRATZAGA AURRE

Bilbon, 2017ko ekainaren 26an

LABURPENA:

2015eko irailean NBEan Garapen Iraunkorrerako Helburuak sinatu ziren, Milurteko Garapen Helburuen oinordeko izango den nazioarteko garapen agendan barneratuta. Hamazazpi helburu hauek eta haiekin datozen 169 jomugak indarrean egongo dira 2016. urteko hasieratik 2030era arte, garapenerako erronka bat suposatuz munduko herrialde, enpresa eta herritar guztientzako. Helburu hauek haien aurrekariekin alderatuz, hainbat faktore berritzaile eta eraldatzaile barneratzeko saiakera aipagarria suposatzen dute herrialdeen garapenari dagokionez. Hala ere, agenda hau ez da NBEak sinestarazi nahi digun bezain biribila, haien aspektu negatiboak nabarmentzen dituzten hainbat kritika jaso dituztelarik. Lan honen helburua nazioarteko agenda honen inguruko ikuspuntu kritikoa eragiteko beste baliabide eskaintzea da, helburuen nondik norakoak azalduz eta azken urteotan sortutako kritika bai positibo bai negatiboen bilketa aurkeztuz.

RESUMEN:

En septiembre de 2015 se firmaron en la ONU los Objetivos de Desarrollo Sostenible dentro de la agenda de desarrollo internacional que será la sucesora de los Objetivos de Desarrollo del Milenio. Estos diecisiete objetivos y las 169 metas que los acompañan estarán en vigor desde principios de 2016 hasta el 2030, suponiendo un reto de desarrollo para todos los países, empresas y habitantes del mundo. Estos objetivos, comparados con sus antecesores, suponen un gran intento para introducir numerosos factores novedosos y transformadores en el desarrollo de los países. Sin embargo, esta agenda no es tan redonda como la ONU pretende, habiendo recibido gran número de críticas que resaltan sus aspectos negativos. El objetivo de este trabajo es ofrecer los recursos necesarios para generar una actitud crítica hacia esta agenda internacional, mediante la justificación de los objetivos y la presentación de diversas críticas tanto positivas como negativas que han surgido durante los últimos años.

ABSTRACT:

In September 2015 the Sustainable Development Goals were signed at the UN as part of the international development agenda which would be the successor of the former Millennium Development Goals. These seventeen goals and the 169 targets that accompany them will be in force from the beginning of 2016 until 2030, representing a challenge for all the countries, firms and citizens of the world. These goals, compared to their predecessors, mean a huge attempt to introduce a number of novel and transforming factors to the development of countries. Nevertheless, this agenda is not as whole as the UN aspire them to be, having received large amounts of criticism highlighting their negative aspects. The goal of this essay is to provide of the necessary resources to generate a critical attitude towards this international agenda, through the justification of the goals and the presentation positive and negative criticism issued during the last years.

AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA HISTORIKOKI.....	5
2. MGHetik GIHetara	11
2.1. MGHen EZAUGARRIAK	11
2.2. MGHen EBALUAZIOA	13
2.2.1. EKARPENAK	13
2.2.2. MUGAK	14
2.3. 2015en OSTERAKO GARAPEN AGENDAREN ERAIKUNTZA.....	15
3. GIH: OINARRIZKO ELEMENTUAK	18
3.1. DUINTASUNA	19
3.2. JENDEA	20
3.3. OPAROTASUNA.....	22
3.4. PLANETA	24
3.5. JUSTIZIA	26
3.6. ELKARLANA	26
4. GIHen EBALUAZIOA.....	28
4.1. ERAIKUNTZA PROZESUA	28
4.2. IZAERA.....	29
4.3. EDUKI OROKORRA	30
4.4. HELBURU ETA JOMUGEN ANALISIA.....	33
ONDORIOAK	36
BIBLIOGRAFIA	38
WEBGRAFIA.....	43

SARRERA

Munduko gobernuen iritziz, 15 urtetan gure planeta bizitzeko leku askoz hobeia izan daiteke. 2015eko irailean Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren 17 helburuak - Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) - eta hauekin batera datozen 169 jomugak onartu zituzten New Yorken ospatutako Nazio Batuen Erakundearen (NBE) gailurrean. Agenda hau aurretik aipatutako mundu hobeia lortzeko gida bat da, herrialde guztietan hobetu beharreko aspektuak azpimarratuz; besteak beste, pobrezia eta disparekotasunak, genero berdintasuna, osasuna eta lan baldintzak, hezkuntza, eta bakea, beti ere eredu ekonomiko jasangarri bat sustatuz eta ingurumenaren babesa bultzatuz. Helburu hauek izaera multidimentsionala eta integrala daukate, hau da, garapen iraunkorraren hiru dimentsioak – ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa - barneratzen dituzte, haien artean lehentasunik aurkeztu gabe. Horretaz gain, izaera unibertsala daukate, hortaz, munduko gobernu, enpresa eta pertsona guztiengan edukiko dituzte efektuak. Ondorioz, 2016ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zirenetik guztion eginkizuna izan beharko litzateke Agenda aurrera eramatea, juridikoki derrigorrezkoa ez izan arren (UN, 2015).

Hala ere, helburuak urte eta erdi indarrean egon ostean, eguneroko berriei erreparatuta badirudi egoera globala hobera joan baino txarrera ari dela joaten. Hortaz, posible al da gure mundua Agenda honen bitartez hobetzea? Eztabaida guztietan bezala, aldeko eta aurkako argumentuak agertu zaizkie GIHei. Alde batetik badira helburuak bete daitezkeela uste duten optimistak. Agenda 2000. urtean hasitako Milurteko Garapen Helburuen (MGH) jarraipena aurrera eramateko aukera bezala ikusten dute, egindako lorpenak hobetzeko eta beste zenbait helburu osatzeko. Beste aldetik, NBEaren aldarrikapen honen aurrean jarrera eszeptikoa aurkeztu duten kolektiboak ditugu. Oposizio honen barruan ere iritzi kontrajarriak aurki ditzakegu: badira helburuen barruan akatsak aurkitzen dituztenak, agenda gehiegikeria hutsa dela pentsatzen dutenak edota helburuen bitartez lortu nahi dena nahikoa ez dela uste dutenak.

Batek bere buruari galde liezaioke: baina, zergatik Garapen IRAUNKORRERAKO Helburuak? Bada egia GIHak MGHen jarraipen bezala sortu zirela (UN, 2013a). Azken hauen zenbait helburu eta jomuga global bete ziren arren - esaterako, pobrezia eta gosearen murrizpena - datuei begiratuta ohartuko gara ez zirela aurrera eramanez modu berdinean ezta osatu eskualde guztietan. Beste helburu batzuetan, ordea, ez zen aurrerapen garrantzitsurik egin (Oses, 2015). MGHei ardura eragin zuten munduko gobernu eta erakundearen artean pobrezia aurkako borrokan eta 2015 ostean betetako helburuak hobetzeko eta bete gabekoak osatzeko motibazioa sortu zen (Sachs, 2012). Honetaz gain, 2012ko Rio+20 gailurrean erabaki zen azken urteotan ardura nagusi bat suposatu zuen gai bat sortzeaz zeuden GIHetan barneratzea: jasangarritasuna. Hortaz, GIHak ez dira soilik MGHen hedapena, baizik eta ekonomia, gizartea eta ingurumena sistema integratu bezala ikusten dituen agenda bat hiru hauen aldebereko babesa sustatuz (Griggs et al., 2013).

Lan honen helburu nagusia 2030 Agendaren inguruko ikuspuntu kritiko bat sortzeko baliabideak aurkeztea da. Horretarako, autore eta erakunde ezberdinek

plazaratutako ikuspegi bai baikor, bai ezkorren bilketa bat egingo da, modu ahalik eta objektiboenean aurkeztuz. Hau egin aurretik, GIHen aurrekarien analisisa garatuko da, hauen eraikuntza prozesua azaltzeko eta agendak daukan egituraren ulermen sakona lortzeko, hau nolabait justifikatuz. Honen ondoren, helburuen alderdi positiboen eta negatiboen azalpena egingo da, gaiaren inguruko iritzi heterogeneoak aipatutako ikuspuntu kritikoa garatzeko tresna bezala aurkeztuz.

Honela, beste zenbait helburu lortzeko asmoa dauka lan honek. Haien artean, bilaketa lan sakon bat egitea, aurkitutako argitalpenen artean gaia garatzeko garrantzia daukaten testuen aukeraketa egitea eta haietatik esanguratsua den informazioa lortzea, gai honen inguruan haien iritzia aurkeztu duten idazle zein erakunde ezberdinen argitalpenak biltzea, ikuspuntu ezberdinak jorratzea modu objektibo batean eta gaiaren inguruko eztabaida sakonago bat bideratzeko beharrezko materiala eta informazioa biltzea.

Hau dena aurrera eramateko, lehenik eta behin historian zehar garrantzizkoak izan diren zenbait garapen teoria aurkeztuko dira marko teoriko moduan, azken 50 urtetan garapen jasangarriaren inguruan egindako hainbat manifestu eta bilerarekin batera. Bigarren zatian, 2000. eta 2015. urteen artean indarrean egon ziren Milurteko Garapen Helburuak jorratuko dira, hauek azalduz eta haien balioespen kritiko bat eginik, Post-2015 Garapen Agendaren eraikuntza azaltzeko tresna moduan. Jarraian, lanaren aztergai nagusi diren Garapen Iraunkorrerako Helburuak azalduko dira, gai nagusiaren ulerpen sakona ziurtatzeko. Laugarren parte GIHen ebaluazioan oinarrituko da. Horretarako, helburuen alde eta kontra egiten duten hainbat argitalpen bilduko dira, iritzi ezberdinak ebaluatzen duten alorraren arabera sailkatuz. Amaitzeko, aurretik egindako analisitik zenbait ondorio aterako dira haratago doan eztabaida batentzako oinarriak zehaztu ahal izateko.

1. GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA HISTORIKOKI

GIHei testuinguru egoki bat emateko, bi dira azaldu beharreko kontzeptuak: garapena eta iraunkortasuna. Garapenari dagokionez, historian zehar autore ugari azaldu dituzten garapen teoriak aztertuko ditu testu honek. Bestalde, garapen iraunkorraren kontzeptuaren sorrerara joko du, zenbait idazleren ingurumenarekiko arduren analisia eginda eta ingurumen-arazoak ezagutzera emateko egindako hainbat konferentzia eta txosten azalduta.

Garapen Ekonomia berezko gai bezala jorratzen hasi aurretik, zenbait autore honekin erlazionatutako gaietan aritu ziren. Hau egiten lehenak autore klasiko moduan ezagutzen ditugun XVIII. eta XIX. mendeen arteko pentsalariak dira, esaterako Smith, Malthus edo Ricardo (Unceta, 2014). Haien ardura nagusia herrialdeentzako etorkizun optimoaren bilaketa zen, epe luzeko hazkunde ekonomikoan oinarritzen zena. Kapitalaren metaketa ikusten zuten hazkunde honen motorrean eta, ondorioz, herrialdeen aberastasuna. Bestalde, muga natural konpongaitzak ikusten zituzten eta hauek eragingo zuten produkzioaren geldialdi saihestezina (Bustelo, 1998). Malthusek ardura berezia aurkeztu zuen ingurumen gaiengatik, biztanleria hazkundera janariaren produkzio mailaren hazkundera baino askoz handiagoa zela ikusita goseteak aurreikusiz. Hala ere, ondorengo aurrerapen teknologikoek erratuta zegoela frogatu zuten (Paul, 2008; Sutcliffe, 2014). Laburpen moduan esan dezakegu tradizio klasikoak hazkunderaren teoria dinamiko bat garatu zuela, analisi ekonomikoa eskaintzaren aldetik eginda. Hala ere, teoria honek gaur egungo egoeran muga garrantzitsuak ditu, hala nola, muga fisikoen gainestimazioa, aurrerapen teknologikoaren aukeren azpiestimazioa edota eskariaren gutxiespena (Bustelo, 1998).

Karl Marx askotan autore klasikotzat hartzen den arren, guztiz heterodoxoa dela onartu beharra dago, kapitalismoaren lehenengo kritika gogor eta zorrotza plazaratuz (Sutcliffe, 2014). Ekonomia kapitalistaren mugimendu legeen manifestuaren bitartez, lehen garapenaren teoria garrantzitsua garatu zuen, kapitala eta lana sistema ekonomiko honen oinarrian jarrita. Bere esanetan, kapitalak bi behar kontrajarri ditu: lana merkeago bihurtzea gainbalioa sortzeko, eta soldaten handipena eskaria eragiteko. Harreman honetatik bi krisi potentzial ezberdin identifikatzen ditu: errentagarritasun krisia, mozkinen murrizpenarengatik, eta gaineoizpena, soldaten murrizpenak eragindako eskariaren eskasia dela eta. Honek guztiak produkzioaren izaera sozialaren eta irabazien jabekuntza pribatuaren arteko kontraesanak eragiten du (Bustelo, 1998).

XIX. mende amaieratik keynesianismoaren sorrerara arte European nagusi izan zen pentsamendu ekonomikoa neoklasikoa izan zen. Honen bidez, epe luzeko ardurak alde batera utzi ziren epe laburrekoak jorratzeko, herrialde garatuen hazkunde egonkorak egoera geldikorren beldurra lasaitu zuela aprobetxatuta. Ardura produktibitate banaketara aldatu zen eta produktibitate marjinalen analisiari ekin zioten. Honela, kontsumitzailearen teoria garatu zuten baliagarritasunaren maximizazioak

suposatzen zuen portaera arrazionalen oinarrituta, eta baliabideen esleipen egokiaren bitarteko oreka planteatu zuten. Modu horretan, klasikoen egoera geldikorraren teoria alde batera utzi zuten autore hauek. Schumpeter, hauen garaikidea izan arren, aurretik azaldutako pentsamendu ekonomiko guztiengandik aldendu zen, garapen teoria propio bat eratuz. Hazkunde eta garapenaren arteko ezberdintasuna azpimarratu zuen: lehena ekoizpenaren handipen prozesu graduala da eta bigarrena produkzio faktoreen konbinazio berrien emaitza, azken hau prozesu leherkorra izanik (Bustelo, 1998).

Keynes XX. mendeko ekonomistarik garrantzitsuenak izan zen, garai neoklasikoarekin bukatu zuena (Berzosa, 2006). Ekonomiaren mekanismo autoerregulatuak zalantzan jarri zituen, interes pribatuak interes publikoaren alde beti egiten ez zuela esanik, eta politika ekonomikoaren beharra aldarrikatuz, hau da, estatuaren esku-hartzea arlo ekonomikoan. Bere hitzetan, soldaten malgutasun ezak ekonomiaren doikuntza automatikoa ezinezko bihurtzen zuen, politika ekonomikoaren beharra sortuz eskari agregatua eragiteko (Diamand, 1988). Bigarren Mundu Gerraren ostean, Keynesen ekarpena tradizio neoklasikoarekin bateratzeko saiakera ugari egin ziren, analisi makroekonomikoa eta mikroekonomikoa batuz. Emaitzak keynesiar baino neoklasikoago izaten bukatu zuen, post-keynesiarren kritika ugari jasota (Bustelo, 1998).

Behin Bigarren Mundu Gerra (1939-1945) bukatuta, herrialdeen epe luzeko garapena garrantzi handiko gaia izatera pasatu zen, Garapen Ekonomia sortuz teoria ekonomikoaren azpigai bezala (Unceta, 2014; Hirschman, 1980). Keynesek herrialde azpigaratuei arreta gutxi jarri zien arren, eragin garrantzitsua eduki zuen Garapen Ekonomiaren sorreran lau aspektu nagusitan: *monoekonomiarekin* bukatu zuen, egoera ekonomiko orori analisi bakarra aplikatzearekin apurtuz; neoklasikoen analisi estatiko eta mikroekonomikoak alde batera utzita, ikuspuntu dinamiko eta makroekonomikoa proposatu zuen; nazioak kontabilitate eta estatistika garatzera bultzatu zituen; eta erreforma komertzial eta monetarioen alde egin zuen nazioarteko mailan (Berzosa, 2006; Bustelo, 1992). Honetaz gain, 40ko hamarkadako deskolonizazioak ere garrantzi aipagarria izan zuen Garapen Ekonomiaren sorreran, beste faktore batzuen artean. Interesa sortu zen deskolonizatutako herrialdeen garapen egokian, bai haien partetik, bai herrialde garatuen partetik ere (Bustelo, 1992).

Garapen Ekonomiaren lehen aitzindariak (1945-1957; Lewis, Rostow...) garapena eta hazkundeak sinonimoak ziren berriz ere, gehienetan errenta per kapitaren arabera neurtuta (Unceta, 2014). Identifikazio hau hainbat arrazoirengatik ematen zen, esaterako, Hirugarren Munduko herrialdeen atzerapena konpontzeko edota errenta handitzea guztientzako optimo suertatzen zelako (Hirschman, 1980). Garai honetan, errenta garapenarentzako adierazle nahikoa ez zela iradoki zuen bakararra Viner izan zen, eta Myrdalek aldaketa sozial eta politikoak proposatu zituen adierazleak hobetzeko urrunago joanik (Bustelo, 1992; Bustelo, 1998). Honela, garapenak bi helburu nagusi zituen: bizi-maila hobetzea eta mendebaldeko gizartea mundu osora garatzea kateatutako zenbait fasetan. Helburu hauek lortzeko zenbait neurri proposatu zituzten:

industrializazioa; barne-merkatuaren babes, inportaziok mugatuz; eta estatuaren esku-hartzea hazkunde industrialia sustatzeko (Bustelo, 1992).

50eko hamarkadaren bukaeran nazioarteko eta nazio barruko disparekotasunak handitzen ari ziren, Hirugarren Munduko garapenaren emaitzak ez baitziren uniformeki banatu (Elliott, 2012). Hazkunde demografikoak, ezegonkortasun politikoak eta hazkunde ereduaren mugek beste garapen eredu baterako bilaketa sustatu zuten Hirugarren Munduko herrialdeei egokituta. Horrela, bi korrante sortu ziren: aurreko garapen teoriaren adar merkatuzalea eta menpekotasunaren teoria. Bauer eta Johnson bezalako zenbait autore hasi ziren aipatutako lehen korrantea garatzen 60ko hamarkadaren hasieran. Haien iritziz, herrialde azpigaratuen merkatuen liberalizazioak haien efizientzia ekonomikoa handituko luke. Honek estatuen partaidetza mugatzea suposatuko luke, merkatuen funtzionamendua oztopatu ez dezaten eta estatuen ohiko funtzioak laga ez ditzaten. Gainera, ikuspuntu kritikoa aurkeztu zuten herrialde aberatsek emandako kanpo laguntzekiko (Bustelo, 1992).

Bestalde, menpekotasunaren teoria daukagu, 60ko eta 70eko hamarkadetan garatu zena batez ere garapen bideko herrialdeetako autoreen aldetik. Teoria honen sorrera hainbat faktoreen emaitza izan zen: teoria ortodoxoen bateragarritasun ezarena Hirugarren Munduko egoerarekin, herrialde hauen independentzia ekonomiko ezarena, herrialde garatuetako pentsamendu erradikalena eta teoria ortodoxoen geldialdiarena. Baran menpekotasun eskolaren aitzindari nagusizat hartzen da. Bere hitzetan, azpigarapena herrialde garatuen – zentroaren – bilakaeraren ondorio da eta haien eta Hirugarren Munduko herrialdeen – periferiaren – arteko harremanek azken hauen garapena oztopatzen dute. Hortaz, argi geratzen da herrialde garatuen sistema ekonomikoaren, kapitalismoaren, eta periferiako herrialdeen arteko bateragarritasun eza. Inportazioak ordezkatzeko politikak eta eskualde mailako integrazio ekimenak izan ziren korrante honen proposamen nagusiak menpekotasunetik ateratzeko (Bustelo, 1992; Elliott, 2012).

60ko hamarkadaren amaieran aldaketa berri bat eman zen teoria ortodoxoan Ongizate Estatuaren alde, hazkundeari garrantzia kenduz eta arreta enplegua, disparekotasunak edo oinarrizko beharrak bezalako gaietara eramanda. Izan ere, hazkundearen aurkako zenbait iritzi sortu ziren: mendebaldeko hazkunde eredu zalantzan jartzen hasi zen eta bere mugak begi bistakoak bihurtzen hasi ziren (Bustelo, 1992). Muga hauen inguruko eztabaida irekitzeko, 1968 urtean 30 zientzialari, ekonomista eta enpresari industrial europar elkartu ziren Erroman Peccei eta Kingek gonbidatuta, Erromako Kluba sortuz. Bi urteren ostean, Klubaren lehen bilera ofizialean, *Massachusetts Institute of Technology*-ko aditu talde bati haien lehen txostena sortzeko ardura eman zioten. Txosten hau bi urte geroago argitaratu zen, 1972an, *The Limits to Growth: A Report to the Club of Rome* izenarekin, “Meadows Txostena” modura ezaguna. Txostenaren autoreen hitzetan, hau bost ardura nagusi tratatzeko garatu zen: industrializazio eta biztanleria hazkorrak, beharrezko mailaren azpiko elikapena, baliabide ez-berriztagarrien agorpena eta ingurumenaren hondaketa. Bere ondorio nagusia zera izan zen, baliabide naturalen ustiapen maila mantenduta,

hurrengo ehun urteetan hauen agorpena emango zela, hazkundera mugatzea konponbide moduan proposatzen zutelarik (Meadows et al., 1972).

Urte berdinean, Estokolmon NBEaren Lurraren Konferentzia ospatu zen, lehen nazioarteko bilera ingurumen arazoak soilik tratatzeko. Horretan, garapena eta ingurumena txanpon berdinarekin bi alde bezala deskribatu ziren. Bi izan ziren konferentzia honen emaitza nagusiak: NBEaren Ingurumen Programaren (UNEP¹) sorrera eta Giza Ingurumenaren Estokolmoko Deklarazioaren hartzea. Dokumentu honetan ingurumen arazoaren izaera azaltzen da eta hauen aurka egiteko zenbait printzipio zehazten dira, nazioarteko elkarlanean oinarrituz (UN, 1972). Hala ere, konferentzia hau ez zen guztiz efektiboa izan ingurumenaren babesa eta garapena behar lehiakor eta ez koordinatu bezala ikusten zirelako (Paul, 2008).

Aipatutako Ongizate Estatuaren aldeko ikuspuntu aldaketaren ondorioz, Garapen Ekonomiaren esparrua hainbat dimentsiotara ireki zen eta bere helburuak errentaren hazkundera mugatzeari utzi zioten, ardura berriak barneratuz. Hirugarren Munduko desneplegua eta azpienplegua Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) hasi ziren ikertzen, teknologia berrien aplikazioa eta enpleguaren ezaugarri negatiboak aztertuz. Hazkunde ekonomikoak Hirugarren Munduan sortzen zituen disparekotasunak ikusita, birbanaketa planak garatu zituzten. Azkenik, oinarritzko beharren asetzeari arreta berezia eman zitzaion, hau da, bizi ahal izateko asetu beharreko beharrei. Faktore hauek kontuan hartuta, adierazle berriak eraiki ziren pobrezia edo disparekotasunak bezalako faktoreak barneratuz.

Hala ere, behar basikoen aldeko ikuspuntu hau ez zuen asko iraun eta 70eko amaierarako kontra-iraultza neoliberal bezala ezagutu zen mugimendua hasi zen. Garai honetan AEB edo Erresuma Batua bezalako herrialdeetan gobernu kontserbatzaileak egon ziren boterean eta haien eragina nazioarteko erakundeetara igaro zen. Eredu sozialistek gero eta erakargarritasun txikiagoa zeukaten. Garapen Ekonomia konbentzionalaren optimismoaren eta menpekotasun teoriaren joera katastrofistaren aurkako jarrera teorikoak agertu ziren. Gainera, Hirugarren Mundua uniformetzat zeukan ideia alde batera utzi zen, zenbait herrialde asiar liberalen arrakasta beste herrialde protekzionista batzuen porrotarekin alderatuta. Iraultza honen proposamen nagusia liberalizazioa zen: barne liberalizazioari dagokionez, garrantzi handia eman zitzaion merkatuari baliabideak esleitzeko mekanismo bezala, estatuaren esku-hartzea prezioen desbiderapen eta distortsio arrazoi bezala ikusita. Bestalde, kanpo liberalizazioari dagokionez, kritika handiak egin zitzaizkien inportazioak ordezkatzeko politikei, esportazioetara bideratutako industrializazioa aurrera eramanez zuten herrialdeak goraiatu zirelarik (Bustelo, 1992).

80ko hamarkadan ingurumenaren eta garapenaren, eta herrialde garatu eta azpigaratuen arteko loturak azpimarratzen hasi ziren. UNEPak Naturaren Babeserako Nazioarteko Elkarteari (IUCN²) eskatu zion ingurumenaren arazoak eta hauen

¹ United Nations Environment Programme

² International Union for Conservation of Nature

konponbide posibleak identifikatzeko txosten batean: *World Conservation Strategy* (IUCN, 1980). Honetan, garapena ingurumenaren babesa lortzeko neurri bezala azaldu zuten, oztopo bezala adierazi ordez (Elliott, 2012). Bestalde, 1983an NBEak Ingurumen eta Garapenerako Munduko Batzordea (WCED³) sortu zuten, lau urte geroago Brundtland Txostena argitaratuko zuena *Our Common Future* izenarekin (Brundtland, 1987). Txosten honetan garapen jasangarriari emandako definiziorik garrantzitsuenetarikoa eman zitzaion: gaur egungo beharrak betetzen dituen garapena, etorkizuneko beharrak betetzeko gaitasuna oztopatu barik. Honi esker, jasangarritasunaren inguruko ardura piztu zen herrialde garatuetan agenda politikoetan barneratuz (Paul, 2008).

90eko hamarkadaren hasierarekin aldaketa berri bat eman zen pentsaera ortodoxoan: korrante liberal erradikala berraztertu zen. Horren ondorioz, estatuaren esku-hartze neurtu eta gardena onartu zuten, beti ere merkatua bultzatzeko bazen: egonkortasun makroekonomikoa mantenduz defizit maila iraunkor batekin, ingurune lehiakorra sortuz, giza kapitalean, azpiegituretan eta ingurumenean inbertituz eta garapen instituzionala bideratuz. Munduko Bankuak lehen aldiz onartu zuen horrelako esku-hartzea garapenerako onuragarria zela, ekialdeko Asiako kasuan bezala, baina sustatutako ereduak kritikak jaso zituen neoliberalergia izateagatik (Bustelo, 1998).

Hamarkada honen hasieran, 1992an, momentura arte egindako nazioarteko konferentziarik handiena egin zen Rio de Janeiron: NBEaren Ingurumen eta Garapen Konferentzia (UNCED⁴), Lurraren Gailurra bezala ezagutua. Ipar eta hegoaldearen arteko negoziazio bat izan zen garapen jasangarriko agenda baten printzipioak zehazteko, Agenda 21 deitua. Honen arabera, herrialdeek garapen jasangarriko estrategia propioak eratu behar zituzten agendan oinarrituta, eta neurri hauen barnerapena gainbegiratzeko Garapen Iraunkorrerako Komisia (CSD⁵) sortu zen (Paul, 2008; Elliott, 2012).

Milurteko berriaren sarrerarekin beste motatako eztabaidak sortu dira garapenari dagokionez. Historian zehar garapenak edukitako efektu negatiboak kontuan hartuta –pobreziaren iraunaraztea, disparekotasunen handitzea... - kontzeptu hau birplanteatu da eta postgarapen izeneko korrante berri bat eraikitzen hasi da. Horretan, garapena alde batera uzten da modernizazioak ekarritako hainbat faktoreren hondatzea dela eta. Garapena eta azpigarapena errealitatea interpretatzeko modu berdinen menpeko kontzeptutzat hartzen dituzte, herrialdeen etorkizun komuna azaldu nahi duen edozein ideia kanpoan utziz (Unceta, 2015). Lehen aldiz eztabaidaren zentroan dagoen gai bat ekologia da, handitzen hasi den planetaren hondamenari eta baliabideen agorpenari beldurra dela eta. Planteamendu honen bi galdera nagusiak hurrengoak dira: ea garapena desiragarria den giza beharrak kontsideratuta eta ea hau posiblea den ingurumenean dituen ondorioak kontuan hartuta (Sutcliffe, 2014). Aipatutako bi kontsiderazio hauek gogoan hartzen dituen planteamendu bat *Buen Vivir* izeneko da. Hau garapenari

³ World Commission of Environment and Development

⁴ United Nations Conference on Environment and Development

⁵ Commission on Sustainable Development

ematen zaion alternatiba bat da, Latinoamerikako zenbait herrialdetan garatzen ari dena. Gizakien barnerapena naturan da bere oinarria (Unceta, 2014).

Azken hamarkadetan GIHen aurrekari zuzen moduan interpreta ditzakegun zenbait konferentzia eta txosten garatu dira. Aipagarrienak 2000 urtean New Yorken ospatutako Milurteko Gailurra da, MGHak sinatzeko balio izan zuena. Bi urte geroago Garapen Iraunkorrerako Mundu Gailurra (WSSD⁶) ospatu zen Johannesburgon, MGHen zenbait gabezia osatzeko. Hauek lanaren hurrengo zatian azalduko dira zehaztasun handiagoarekin.


⁶ World Summit on Sustainable Development

2. MGHetatik GIHetara

2000. urteko irailaren 6tik 8ra 149 herrialdeetako estatu buru eta beste 40 herrialdeetako goi-kargu ofizial elkartu ziren NBEaren New Yorkeko egoitzan Milurteko Gailur izeneko bileran. Batzar honen fruitu nagusia Milurtekoaren Deklarazio bezala ezagututako dokumentua da (UN, 2000). Horretan XIX. mendeko nazioarteko agendan egongo ziren balore, printzipio eta helburuak zehaztu ziren, baita hauek betetzeko epemugak ere. New Yorken bildutako ordezkarien hitzetan, sartu berri zen milurteko berriaren erronka nagusia globalizazioaren efektu positiboak nazioarteko mailan lortzea zen, ordura arte era desberdinean banatutako kostu eta irabaziak berdinduz. Sei balore nagusi azpimarratu zituzten: askatasuna, ekitatea, solidaritatea, tolerantzia, ingurumenari errespetua eta elkarbanatutako erantzukizuna. Hauek betetzeko zortzi helburu proposatu zituzten 2015 urteko epemugarekin: Milurteko Garapen Helburuak.

2.1. MGHen EZAUGARRIAK

Zortzi dira Milurteko Deklarazioan proposatutako helburuak: pobrezia eta gosea desagerraraztea, lehen mailako hezkuntza unibertsala lortzea, genero berdintasuna sustatzea eta emakumeak ahalduntzea, ume hilkortasuna murriztea, amen osasuna hobetzea, malaria edo HIESa bezalako gaixotasunen aurka egitea, ingurumen jasangarritasuna ziurtatzea eta garapenerako lankidetzaren globala. Helburu bakoitza lortzeko zenbait jomuga erabaki zituzten (UN, 2000). Hemendik aurrera hurrengo hauek erabiliko ditugu oinarritzko erreferentzia modura: Milurteko Deklarazioa (UN, 2000) eta helburuen web orria⁷.



1. IRUDIA: Milurteko Garapen Helburuak. Iturria: NBE. Norberak egindakoa.

Lehen helburua **pobrezia eta gosearen desagerraraztea** zen. Hau lortzeko ezarritako lehen jomuga 1,25\$ baino gutxiagorekin bizi zen pertsona kopurua erdira murriztea zen 2015erako, epemuga baino bost urte lehenago lortu zena. Pertsona guztientzako lan oso eta produktiboaren lorpenari dagokionez, lortutako emaitzak ez ziren horren onuragarriak izan, enplegua zeukaten lanerako adinean zeuden pertsona kopurua murriztu baitzen batez ere 2008ko krisi ekonomikoa zela eta. Azkenik, gosea pairatzen zuen pertsona kopurua murriztu arren, oraindik landu beharreko jomuga da.

⁷ <http://www.un.org/millenniumgoals/>

Lehen mailako hezkuntza unibertsala lortzeko, jomuga bakarra ezarri zen: ume guztiek lehen mailako hezkuntza osoa jasotzeko aukera edukitzea, bai mutila bai neska izanda. Hau ez jasotzeko arrisku handiagoa dago ume pobreen artean eta gatazkan dauden herrialdeetako umeen artean, bereziki neskak badira. Aipagarria da matrikulatutako ume kopuruan eta alfabetatze tasan lortutako hobekuntza.

Helbururik globalenatarikoa **genero berdintasuna sustatzea eta emakumeak ahalduntzea** zen, herrialde bai garatu bai azpigaratuetan lortu beharrekoa baitzen. Honetarako ezarritako jomuga genero berdintasuna lortzea zen edozein mailatako hezkuntzan. Honetan hobekuntza orokor nabaria egon zen arren, beste hainbat alorretan disparekotasunak mantentzen dira, murriztu badira ere, esaterako, pobrezia edo soldata mailei dagokienez.

Laugarren helburua **ume hilkortasuna murriztea** zen, zehazki bost urte baino gutxiago dituzten umeen hilkortasuna bi herenetan txikitzea. Tasa hau nabarmen txikitzea lortu zen, Sahara azpiko Afrika izanik gehien pairatzen duena oraindik. Landa ingurune ala hiri batean bizitzea edota amaren ikasketa maila bezalako faktoreek eragina daukate honetan. Aipagarria da helburu honen iraunkortasunari emandako garrantzia GIHei begira. Honekin lotuta, **amen osasunaren hobekuntza** ere bazen helburu. Hau lortzeko amen hilkortasun ratioa hiru laurdenetan murriztu nahi zen eta ugalkortasun osasuna unibertsalki eskuragarri bihurtu nahi zen.

Osasunarekin jarraituz, seigarren helburua **malaria edo HIESa bezalako gaixotasunen aurka egitea** zen. 2015erako HIES, malaria eta beste zenbait gaixotasun nagusiren eragina eta igorpena gelditu eta lehengoratu nahi ziren, neurri baten lortu zena fondoan handipenari esker. Gainera, HIESaren tratamendua behar zuten guztientzat eskuragarri bihurtu nahi zuten.

Ingurumen jasangarritasuna ziurtatzea helburu hauen artean zegoen ere bai. Horretarako garapen jasangarriaren printzipioak herrialdeetako politika eta programetan barneratu behar ziren eta baliabide naturalen galera lehengoratu behar zen. Biodibertsitate galera ere murriztu beharra zegoen, ekosistemen babesaren bitartez. Garrantzizkoa zen era berean ur edangarria eta oinarrizko higieña pertsona guztientzako eskuragarri bihurtzea eta auzo marjinaletako biztanleen bizi baldintzak hobetzea.

Azkenik, **garapenerako lankidetzak globala** azpimarratzen zen helburu hauen guztien lorpenerako. MGHak sinatu zituzten herrialdeak konprometitu ziren honako hontara: merkatu eta finantza sistema zabal, erregulatu, aurreikusgarri eta ez-diskriminatzailea garatzera; gutxien garatutako herrialdeen behar bereziei arreta eskaintzera; kostarik gabeko zonaldeak eta uharte txikiak osatzen dituzten garapen bideko herrialdeen behar bereziei heltzera; enpresa farmazeutikoekin elkarlanean garapen bideko herrialdeei oinarrizko medikamentu eskuragarriak eskaintzera; eta sektore pribatuarekin elkarlanean teknologia berrien onurak eskuragarri bihurtzera, batez ere informazio eta komunikazioarekin erlazionatutakoak.

2.2. MGHen EBALUAZIOA

Ugari izan dira MGHak kritikatu dituzten elkarte eta akademikoak, bai haien epemuga aurretik, bai behin hau igarota. Izan ere, haien sorreratik gaur egun arte hainbat ekarpen eta muga antzeman dira helburu hauen aspektu ezberdinetan, hala nola, haien izaeran edota haien betetzean. Haatik, aipatzekoak dira era berean MGHek etorkizunerako nazioarteko garapenari eskaini dizkioten irakaspenak, ez bakarrik haien mugen hautematek eratorriak, eragindako lankidetzak eta jabetze prozesuak ekarritakoak ere.

2.2.1. EKARPENAK

MGHak berritzaile suertatu ziren hainbat aspektutan aurreko garaiekin konparatuta. Orokorrean nabarmendu dena zera da, MGHen potentziala garapen eta gizarte gaien inguruko ardura globala zabalatzeko eduki zuten gaitasuna (Elson & Balakrishnan, 2013; Oses, 2015; Sachs, 2012). Mugimendu global bat lortzeko modu historiko eta efektiboa suposatu dute MGHek, nazioarteko zenbait lehentasun sozial garrantzitsu jomuga bihurtuz. Aldi berean, hauek ikuspegi zabalagoa lortu dute pobrezia, gosea, gaixotasuna, eskolaratze falta, genero disparekotasunak eta ingurumenaren hondatzea bezalako gaien inguruan (Sachs, 2012). Eragindako ardura honek potentziala dauka herritarrak bultzatzeko gobernu eta nazioarteko agentziei presioa sartzeko hainbat aspektutan: helburuen lorpenean, kritika sozialean, aurrekontuen azterketan genero, giza eskubide edota kolaborazioaren ikuspegietatik, eta abar (Elson & Balakrishnan, 2013).

MGHen bitartez lortutako konpromisoa aurrekaririk gabekoa da eta hau justifikatzeko zenbait arrazoi proposatzen ditu Sachs-ek (2012). Lehenik, haien adierazpen erraza goraiatzen du: zenbait helburu eta jomuga zehazten dira denboraldi zehatz batean emaitza garrantzitsuak lortzeko, Elson & Balakrishnan-en (2013) esanekin bat datorrena. Horretaz gain, ez dira erantzukizun legala, baizik eta konpromiso moral eta praktikoak. Beste zenbait autorek ezaugarri negatibo bezala identifikatu dute hau derrigorrezkotasuna ez dakarrelako (Chasek et al., 2016). Azkenik, gobernu, enpresa eta gizarte zibilen zenbait neurri zehatzen bitartez lor daitezkeela argudiatzen du Sachs-ek. Oses-ek (2015) hiru maila analitiko proposatzen ditu MGHak ikusteko hiru modu ezberdinetatik abiatuta: helburuen zerrendaketa bat bezala, haien betetze maila aztertzeko; gobernantza globalerako prozesu bezala, pobrezia eta baztertua borrokatzeko nazioarteko erakundeek sustatutako akordioan oinarrituta; eta mugimendu politikorako agenda bezala, nazioarteko komunitatearen agendaren ardura eta jakituria handitzeko. Azpimarratzen du MGHei esker osagarritasunak, koordinazioak, lerrokatzeak eta herrialdeek helburu komun bat lortzeko jokaera erregulatzen duten beste zenbait printzipiok garrantzia irabazi dutela. Ondorioz, esan dezakegu orokorrean garapenaren alorrean gobernantza global koordinatua sustatu zela MGHen bitartez.

2.2.2. MUGAK

Esan bezala, MGHen hainbat aspektu kritikatu dira azken urteotan zehar, hauetariko zenbaitetan autore ezberdinek iritzi berdina aurkeztu ez badute ere. Adostasun orokorra lortuz gehien errepikatu den irizpen bat helburuen izaeraren ingurukoa da: garapen bideko herrialdeei baino ez daude bideratuta, garatutako herrialdeen zeregin bakarra hauei laguntza ekonomikoak eskaintzea izanik (Chasek et al., 2016; Elson & Balakrishnan, 2013; Martens, 2013; Sachs, 2012). Izaera desegoki honek MGHak baldintzatutako laguntza ekonomikoekin lotzen ditu. Honen bitartez, maileguen hornitzaile diren herrialde garatuei eman behar diete diruaren erabileraren azalpena, egokiena herritarrei ematea bada ere (Elson & Balakrishnan, 2013). Ondorioz, hainbat autoreren ustez, MGHek ez dute suposatzen erronka bat nazioarteko eta adostasunean oinarritutako negoziazioentzako. Horregatik, herrialdeek ez dute sentitzen jabetasuna hauen gain eta ez diote heltzen guztiz nazioarteko komunitateari. Gainera, garapen bideko herrialdeetako garapen kontuetan oinarrituta, ez diote inor atzean ez geratzeak suposatzen duen erronkari aurre egin behar, pobreziaren kausa estrukturaleri, garapen jasangarriari, disparekotasunari edota kutsadurari arreta mugatua eskainiz. Hortaz, beharrezkoa da hurrengo helburuak unibertsalak izatea eta alde batera uztea MGHek aurkezten zituzten garapenaren inguruko aurrean zaharkituak (Chasek et al., 2016).

Hainbat autorek beste zenbait aspektutan erakusten dute adostasuna. Lehenik, gabezia nabari bat ikusten dute MGHen eta Giza Eskubideen arteko lotura zehazterakoan (Chasek et al., 2016; Joshi et al., 2015). Bi hauen hurbilpena garapenari teoriaran bananduta egon arren, politika aplikatzerako orduan bien helburuak oso gertu daude, osagarri bihurtuz (Nelson, 2007). Honetaz gain, askotan aipatzen da MGHetan gizarte zibila ahaztuta geratzen dela haien sorreratik hasita, NBEko aditu talde batek osatu baitzituen gizarte zibilaren irizpidea kontuan hartu barik (Chasek et al., 2016; Elson & Balakrishnan, 2013; Sachs, 2012).

Bestalde, ez diete erantzun egokirik ematen gaur egungo arazoei eta ez dute lortzen zenbait oinarritzko faktoreen kausak identifikatzea. Elson eta Balakrishnan-ek (2013) azpimarratzen dute disparekotasunak eta ekonomia informala bezalako faktoreak ahazten dituztela, ez daudela integratuta garapenerako zentzuzko estrategietan. Gainera, genero berdintasunaren lorpenari dagokion helburua gehiegi sinplifikatzen dela diote: ez dira emakumeen eskubideak berez sustatzen eta ordaindu gabeko ekonomia ez da kontutan hartzen, gizakien eta ingurumenaren zaintzarako oinarritzkoa dena. Helburu hau lehen eta bigarren mailako eskolaratze paritatera mugatzen da. Martens-ek (2013) adierazleen ezegokitasuna aipatzen du, adibide moduan pobreziarentzako eguneko 1,25\$ azpitik bizi den pertsona kopurua herrialde bateko pobreziaren benetako adierazlea ez dela esanik. Rueda eta Zenteno (2016) kritiko aurkezten dira esanik MGHak ez direla desbideratzen eredu erausletik ezta planetaren baliabideen agorpenetik, egoera zailduz. Sachs-ek (2012) azpimarratzen du etorkizunerako datuen fidagarritasun eta gaurkotasuna hobetu beharra.

Oses-ek (2015) bere aldetik, hiru maila analitikoko analisiarekin jarraituz, zenbait muga planteatzen ditu. Helburuen lorpenari dagokionez, ezin da esan lortu zirenik, jomugen %30a baino ez baitzen lortu. Adibide bezala hartuko dugu pobrezia murrizpenaren helburua: maila globalari erreparatuta, aurrerapen nabariak egin dira honetan. Hala ere, hobekuntza hau Txina edo India bezalako herrialdeetan emandako aurrerapenei esker ikusi daiteke mundu mailan eta herrialde hauetan Garapenerako Laguntza Ofizialak ez ziren faktore esanguratsua izan (Unceta & Gutiérrez-Goiria, 2016). Bitartean, Sahara Azpiko Afrikako hainbat herrialdeetan ez da ia hobekuntzarik eman (Economist, 2015a). Ondorio hau oso lotuta dago Joshi-k eta gainerakoek (2015) egindako analisiarekin: errore bat da helburu hauek berdinak izatea herrialde guztientzat haien arteko ezberdintasunak kontuan hartu barik. Izan ere, haien hitzetan MGHeK inpaktu bizkorra edukitzea bilatu zuten azpigarapenaren sintomak tratatuz sistema sozial konplexuak kontuan eduki ordez, herritarrek gobernuak helburuak betetzera bultzatzeko baliabideak sortzeko balioko zukeena.

Azkenik, aipatzekoak dira MGHen mugetatik ondoriozta ditzakegun irakaspenak. Kritika nagusiei erreparatuz, 2015en osterako Agendaren sorreran kontuan hartu beharreko lehen puntua izaera unibertsala daukaten helburu batzuen diseinua oinarritzeko dela da, bai herrialde garatueta bai garapen bidekoetan aplikatu ahal izango direnak. Bestalde, diseinu honen fase guztietan sektore pribatuaren barnerapena sustatu beharko da. Oro har, gaur egungo arazoei erantzun egokiago eta osoago bat emango dion agenda bat sortzeko jarraibideak seinalatu dira.

2.3. 2015en OSTERAKO GARAPEN AGENDAREN ERAIKUNTZA

2015. urte osterako Garapen Agenda bat sortzeko prozesuaren ezaugarri nagusia erakunde, enpresa eta kolektibo ugariaren partaidetzaren sustapena da, aurreko azpiatalean azaldutako MGHen kritika errepikatuenetarik bati aurre eginik. Agenda hau sortzeko bi prozesu ezberdin eman ziren, modu independentean sortu arren, oso lotura estua zeukatenak azkenean proiektu berdin batean bat eginik.

Lehen prozesua 2010eko MGHen jarraipenerako batzarrean sortu zen 2015aren osteko garapen globalerako agenda baten beharra aipatzean (UN, 2010). Hala ere, honen inguruko eztabaida formala ez zen sortu 2012ko urtarrilera arte, NBEaren Idazkari Nagusiak sistema hau koordinatzeko lan-taldea sortu zuenean: NBEaren Eginkizun Taldea (UNTT⁸). Talde honek NBEaren 60 agentzia baino gehiago biltzen ditu, nazioarteko beste zenbait erakunderekin batera. Honen zuzendaritza eta koordinazioa NBEaren bi erakundek elkarbanatzen dute: Ekonomia eta Gizarte Kontuen Departamentuak (DESA⁹) eta Garapen Programak (UNDP¹⁰). Botere banaketa honen bitartez, landutako gaien inguruko ezagutza egituratu nahi dute eta NBEaren barneko

⁸ United Nations Task Team

⁹ United Nations Department of Economic and Social Affairs

¹⁰ United Nations Development Programme

espazio ezberdinen arteko koordinazioa sustatu. Bi txosten nagusi argitaratu zituen UNTTak: 2012ko ekainean agenda prestatzeko gomendio nagusiak biltzen zituen txosten bat argitaratu zuen MGHen irakaspenetik eratorria; eta 2013ko martxoan agenda berri honek eduki beharreko dimentsioak azaltzen zituen txostena plazaratu zuen eginkizun talde honek (Oses, 2015).

Bigarren prozesua garapen jasangarrirako zenbait helburu sortzeko ideian zetzan, 2012ko ekainean ospatutako NBEaren Garapen Iraunkorraren Konferentziatik (UNCSD¹¹) eratorria, Rio+20 bezala ezaguna. Hau garapen jasangarriaren inguruko hirugarren nazioarteko batzarra zen. Lehena Rio de Janeiron ospatu zen 1992an, aurreko atalean azaldu bezala, eta hurrengoa hamar urte geroago Johannesburgon, WSSD bezala ezaguna eta MGHen zenbait gabezia osatzeko egina (DESA, 2017). Rio+20n GIHen kontzeptua garatzen hasi zen negoziazio gatz batzuen bitartez eta, azkenik, delegatuek *The Future We Want* izeneko dokumentua sinatu zuten (UN, 2012). Horren bitartez Lan Talde Irekia (OWG¹²) sortu zuten, GIHen ganorazko proposamen bat egiteko. Horretarako, akziodun garrantzitsuen, gizarte zibilaren inguruko jakitunen, zientzia komunitatearen eta NBEaren partaidetza sustatu behar zuten (Chasek et al., 2016) eta garapen iraunkorraren hiru dimentsioak integratu behar zituzten – ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa – 2015en osterako Garapen Agendan zentzuzko modu batean barneratu ahal izateko (Oses, 2015). OWG delakoak bi fasetan egin zuten lan. Lehenik, herrialde kideek haien iritziak aurkeztu zituzten garapen jasangarriaren inguruan. Bigarren fasean txostena idatzi zuten, garapen iraunkorrerako 17 helburu proposatuz (OWG, 2014).

Esan bezala, agendaren eraikuntza prozesua kolaboratiboa izan zen. Hortaz, itxarotekoa da beste zenbait lan eta eztabaida talde sortzea hau jorratzeko. Horrela, 2012ko uztailean *High Level Panel of Eminent Persons on the Post-2015 Development Agenda* izeneko taldea sortu zuen NBEko Idazkari Nagusiak (DESA, 2017). Hau dibertsitate geografikoaren arabera eta garapenean ganorazko rol bat jokatzeko duten aktoreen ugaritasuna ordezkatzen zuten 27 pertsonak osatu zuten. Talde honek txosten bat aurkeztu zuen 2013ko maiatzean, 2015en osterako Agendarako proposatutako aldaketak eta hauek lortzeko 12 helburu barneratzen zituena (Panel, 2013). Alabaina, txosten honen analisia eginda giza eskubideei, jasangarritasunari eta antolamendu sozialaren garrantziari eskainitako arreta urriaz kexatu egiten dira zenbait aditu. Aldi berean, batzuen iritziz nabaria da hainbat enpresa multinazionalen partaidetzak eduki zuten efektua txosten honen idazketan, haien interesak helburuetan agerian geratzen baitira, geroago azalduko den moduan (Oses, 2015).

Aldi berean eman zen laugarren ekintza Garapen Iraunkorraren Konponbide Sarea (SDSN¹³) izan zen. Zenbait ikerketa zentro independentek, unibertsitatek eta erakunde teknikok osatzen dute, NBEaren zenbait erakunderekin, gizarte zibilarekin eta zenbait enpresarekin batera. Hauen guztien artean jasangarritasun testuinguru bat eraiki

¹¹ United Nations Commission on Sustainable Development

¹² Open Working Group

¹³ Sustainable Development Solutions Network

behar zuten MGHen osteko garapen agendarentzako garapen iraunkorraren dimentsio guztietan oinarrituz (DESA, 2017). 2013ko ekainean txosten bat argitaratu zuen sare honek zera aldarrikatuz: garapen jasangarria lortzeko konpainia barruko eragiketa funtzionalak burutzeko ohiko era – *Business As Usual* – alde batera utzi behar da. Hamabi lan talde espezifiko eratu ziren hamar helburu eta zenbait jomuga zehazteko (SDSN, 2013).

Azkenik, beste zenbait eragile ekonomikoren partaidetza sustatu zen ekimen ugariaren bitartez. Kontsultak egin ziren herrialde eta eskualde ugarietan, bai globalak, bai tematikoak. Haietan oinarritzko beharren asetzearen aldeko ikuspegia nabaria izan zen, disparekotasunen kontrolaren garrantzia azpimarratu zen eta ganorazko aldaketa sustatu zen baliabide naturalak agortuko ez zituen hurbilpen batetik. Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) tartean sartzeko NBEak Gobernu Kanpoko Bitartekari Zerbitzua (UN-NGLS¹⁴) sortu zuen. Haiek garrantzia eman zieten azken urteotako neurri ekonomikoei (liberalizazioa, pribatizazioak...), ardura aurkeztuz botere harremanen inguruan (Oses, 2015). Sektore pribatuari dagokionez, UN Global Compact izeneko ekimena sortu zen haren partaidetza ziurtatzeko. Ekimen honen helburua elkarriketa soziala sortzea da enpresen interesak gizarte zibilaren balore eta eskaerekin, NBEaren proiektuekin, eta abar bateratu ahal izateko. Horretarako, giza eskubideekin, lanarekin, ingurumenarekin eta ustelkeriarekin lotutako hamar printzipiotan oinarritzen da (DESA, 2017).

Hasierako helburua MGHen jarraipena izango zen agenda bat egitea zen, baina kontsulta guztien ostean ideia honetatik nabarmen zabaldu ziren beste hainbat ardura eta arazo barneratuz. MGHak hiru aspektutan hobetu ziren: garapen jasangarriaren dimentsio ugariak barneratu ziren, gaur egungo munduaren aurkezpen errealistagoa lortuz; azaldutako gaiak izaera zabalagoa zeukaten; eta unibertsaltasuna lortu zen, hainbat mailatako konpromisoa ekarriz (Oses, 2015). 2014ko abenduan hau dena laburtzen zuen dokumentua argitaratu zuen NBEak: *The road to dignity by 2030: ending poverty, transforming all lives and protecting the planet* (Ki-Moon, 2014). Hurrengo urteko irailean GIHak onartu ziren *Transforming Our World: The 2030 Agenda for Sustainable Development* dokumentuaren bitartez, OWGaren txostenean oinarrituta zegoena (UN, 2015).

¹⁴ UN Non-Governmental Liaison Service


3. GIH: OINARRIZKO ELEMENTUAK

Esan bezala, 2015eko irailean NBEa osatzen zuten 193 estatu buru eta gobernuek Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuten New Yorken ospatutako Garapen Iraunkorrerako Gailurrean. Sinatutako dokumentuaren arabera, agenda hau pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko plan eraldatzaile bat da, bakea eta askatasunaren sustapena aldarrikatuz eta pobreziaren desagerrarazpena bere erronka nagusi bezala aitortuz. 17 GIHeK eta haiekin doazen 169 jomugek hurrengo 15 urteetan zenbait dimentsio bultzatuko dituzte: pertsonak, gosea eta pobrezia desagerraraziz; planeta, jasangarritasuna eta baliabide naturalen babesa sustatuz; oparotasuna, garapen ekonomiko, sozial eta teknologikoaren bitartez; bakea, justizia bermatuz; eta elkarlana, Garapen Iraunkorrerako Munduko Batasuna indarberrituz.

Hamazazpi dira *Transforming Our World* dokumentuan azaltzen diren 2030 Agendaren helburuak: pobrezia akabatzea, gosearekin bukatzea, bizitza osasuntsua bermatzea, kalitatezko hezkuntza sustatzea, genero berdintasuna lortzea, ur garbia eta osasunbidea eskuragarri bihurtzea, energia ez-kutsatzailea eskuragarri bihurtzea, lan baldintza egokiak eta hazkunde ekonomikoa sustatzea, industria, berrikuntza eta azpiegiturak hobetzea, disparekotasunak murriztea, hiri eta komunitate jasangarriak lortzea, ekoizpen eta kontsumo arduratsua sustatzea, klimaren alde jokatzeko, lurreko ekosistemetako bizitza babestea, bakea, justizia eta ganorazko erakundeak eraikitzea, eta helburuak lortzeko kooperazioa bideratzea. Hala ere, GIHaK ez dira Agenda honen osagai bakarrak: deklarazio politiko bat eta jarraipen prozesuaren zehazpena ere badauka. Horretaz gain, zenbait barnerapen neurri adierazten dira 169 jomugetako 43ren bitartez, ekimen politikoa gidatzeko helburuarekin (UN, 2015).

Helburu guztietan garapen jasangarriaren hiru dimentsioak integratzen dira: behar ekonomikoen asetzea, ekitate sozialaren lorpena eta muga naturalen errespetua (Brende & Høie, 2015). Hiru dimentsio hauen integrazioa dela eta, esan dezakegu helburu guztiak elkarrekin lotuta daudela sare bat osatuz (Le Blanc, 2015). Ondorioz, zaila da GIHaK talde ezberdinetan sailkatzea. Lan honetan, NBEko Idazkari Nagusi ohiak egindako sintesiko sei oinarrizko elementuen arabera banatuko ditugu helburuak. Hala ere, helburu guztiek sei elementuak barneratu beharko lituzketela kontuan hartuta, ez da banaketa garbia izango (Ki Moon, 2014). Hemen erabiliko den helburuen sailkapena Galatsidas-ek (2015) *The Guardian* egunkarirako egindakoaren arabera izango da. Hemendik aurrera, hurrengo hauek erabiliko ditugu gehienbat oinarrizko erreferentzia moduan: UN (2015), Ki Moon (2014) eta GIHen web-orria¹⁵.

¹⁵ <http://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>



2. IRUDIA: GIHen Oinarrizko Elementuak. Iturria: Ki Moon, 2014. Norberak egindakoa.

3.1. DUINTASUNA

Lehen oinarrizko elementua duintasuna da, pobrezia akabatze eta disparekotasunen aurka egiteko. Honetan, lehen eta bosgarren helburuak sar genitzake.

GIH-1: Pobrezia akabatzea bere forma orotan eta mundu osoan: Inor atzean ez uztea da Agenda beraren hitzetan bere helburu nagusia (ICSU-ISSC, 2015; UN, 2016). Honek esan nahi du herritar guztiek eskubide ekonomiko eta zerbitzu basikoei sarbide aukera berdinak eduki beharko lituzketela (Cantú, 2016). Gaur egun, 800 milioi pertsona baino gehiago bizi dira muturreko pobrezian eta haien oinarrizko beharrak asetzeko borrokatu beharrean. Hau sufritzen duen jende kopururik handiena garapen bideko eskualdeetan bizi da: bertako biztanleriaren bosten bat eguneko 1,25\$ baino gutxiagorekin bizi da. Pobrezia mailarik handiena Hegoaldeko Asian eta Sahara azpiko Afrikan dago, bereziki herrialde gatazkadunetan. Gainera, azken urteotan biztanleria nabarmen ari da hazten herrialde hauetan, arazoa zailduz (Vessuri & de Montevideo, 2016). Hala ere, pobrezia mundu garatuan ere badagoen arazo bat da, 30 milioi ume pobre hazten baitira munduko herrialderik aberatsenetan. Hortaz, argi dago pobrezia dimentsio askotako arazoa dela eta zaila dela modu unibertsal batean lortzea (Ramos, 2016). Ondorioz, beharrezkoa da bai oinarrizko errenta eta giza babes eskaintza muturreko pobrezia desagerrarazteko, bai aberastasun sorrera eta banaketa sistema egoki bat eratzea orainaldi eta etorkizunerako (ICSU-ISSC, 2015). Bost jomuga daude zehaztuta 2030erako helburu hau lortzeko: muturreko pobrezia desagerraraztea, pobrezian bizi den jende kopurua erditik gora murriztea, gizarte babes planak barneratzea, pertsona guztientzako eskubide berdinak bermatzea maila ekonomikoa kontuan eduki barik, eta pobreen erresilientzia sustatzea. Beste bi jomuga adierazten

dira barnerapen neurri modura: hobekuntza baliabideen biderapenean eta ganorazko marko normatiboen sorkuntza.

GIH-5: Genero berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea:

Beste zenbait aspektutan hobekuntza nabariak lortu arren, helburu hau oraindik da erronka bat munduko leku guztietan, eta gehiago kontuan izanik emakumezkoek munduko biztanleriaren erdia osatzen dutela. Genero arteko disparekotasunak jaiotzatik ematen dira, herrialde batzuetan neskek mutilek baino eskubide gutxiago edukita. Adinarekin ezberdintasun hauek handitzen dira. Adibidez, neskek mutilek baino askoz gehiago pairatzen dituzte haur-ekontzak, efektu negatiboak dituztenak jasotako hezkuntzan, epe luzeko desabantaila bat suposatuz. Izan ere, hezkuntza pobre batek lan merkatura sartzeko aukerak murrizten ditu, emakumeen ahalduntzea geldituz. Muturreko kasu hauek nagusiki garapen bideko herrialdeetan ematen diren arren, herrialde industrializatuetan ere ez da lortu genero berdintasun osoa, kargu politikoetan dagoen emakume kopuruan edota emakume eta gizonen arteko soldaten diferentzian ikusten dena. Horrexegatik, beharrezkoa da aldaketa instituzionalez gain, komunitateak jabeaztea arazoaz (ICSU-ISSC, 2015). Helburu hau lortzeko sei jomuga proposatzen dira: emakumeen aurkako diskriminazio modu eta praktika guztiak akabatzea, ordaindu gabeko etxeko lana baloratzea eta elkarbanatutako erantzukizuna sustatzea, emakumeen parte-hartze publikoa bermatzea eta ugalketa-osasunari sarbidea sustatzea. Barnerapen neurriei dagokienez, zera proposatzen da: eskubide ekonomikoen berdintasuna sustatzen duten erreformak, emakumeen ahalduntzea sustatzeko informazioaren teknologiaren erabilpen hobea eta ahalduntze eta berdintasuna sustatuko duten politikak sortzea eta indartzea.

3.2. JENDEA

Bigarren oinarritzko elementua jendea da, osasuna, hezkuntza eta gizarte sektore baztertuenen inklusioa bermatzeko. Honetan bigarren, hirugarren eta laugarren helburuak sartu baino ez ditugun arren, aurretik azaldutakoak ere sar litezke.

GIH-2: Gosearekin bukatzea, elikagai babesaren lortzea eta nutrizioaren hobekuntza eta nekazaritza jasangarria sustatzea: Herritarren muturreko gosea eta nutrizio txarra garapenerako oztopo dira. Jendearen produktibotasunean eta osasunean efektu negatibo zuzenak dituzte, haien sarrera ekonomikoen handipena eta bizitza kalitatearen hobekuntza zailduz. Gaur egun, ia 800 milioi pertsonak ez dute elikagai nahikorik bizitza osasuntsu bat edukitzeko eta beste askok nutrizio ezegokia sufritzen dute (FAO, 2017). Gehienak garapen bideko herrialdeetan bizi dira, zehazki Asian, eta ehunekorik altuena Sahara azpiko Afrikan ematen da. Honen efektu txarrenak umeez pairatzen dituzte, haien hilkortasunaren kausa nagusi izanda eta hazkunde atzerapenak suposatuz. Hala ere, gure planetak biztanle guztiak elikatzeko beste baliabide baditu. Gaur egungo nekazaritza praktika kaltegarriek elikagaien galtzea eta lurzorua hondatzea eragiten dute. Garapen bideko herrialdeetako nekazari txikiak lagunduz haien bizi kalitatea hobetu ahalko litzateke, aldi berean herrialdearentzako errenta sorrera nagusia suposatzen duen sektorea indartuz. Nahiz eta helburu hau lortzea zaila izan prozesu

natural, ekonomiko eta sozialak barneratzen dituelako (ICSU-ISSC, 2015), hau lortzeko bost jomuga proposatzen dira: gosea eta nutrizio txarra akabatzea, nekazal produktibitatea eta nekazari txikien diru-sarrerak bikoiztea, elikagai ekoizpen sistemen jasangarritasuna bermatzea, eta laborantzaren dibertsitatea mantentzea. Gainera, hiru barnerapen neurri zehazten dira: nekazaritzari erlazionatutako inbertsioak handitzea, merkatu hauen distortsioak konpontzea eta merkatu hauen funtzionamendu egokirako neurriak hartzea.

GIH-3: Bizitza osasuntsua bermatzea eta adin eta pertsona ororen ongizatea sustatzea: Osasuna eta ongizatea edozein gizarte oparoren oinarria da. Azken hamarkadetan aurrerapen garrantzitsuak egin arren, oraindik existitzen dira disparekotasunak osasun laguntzen eskuragarritasunean. Bost urte baino gazteagoak diren sei milioi ume baino gehiago hiltzen dira urtero, Sahara azpiko Afrikakoak eta Hegoaldeko Asiakoak izanik hau gehien pairatzen dutena. Amen ikasketa mailak eta estatus ekonomikoak eragina dauka ume hauen biziraupenean. Amen hilkortasun tasa nabarmen murriztu arren, garapen bideko eskualdeetan haien erdiak baino ez du jasotzen behar besteko laguntza medikoa. Bestalde, HIESa bezalako gaixotasunek kalte handiak egiten jarraitzen dute, batez ere emakumeen aurkako diskriminazioa ematen den tokietan, gaixotasun hau hartzeko haien probabilitatea handituz. Garrantzitsua da aipatzea osasuna GIHetako beste hainbat helbururekin estuki lotuta dagoela (Domínguez, 2016; ICSU-ISSC, 2015; Yamey, 2014). Bederatzi dira ezarritako jomugak: amen hilkortasuna murriztea, umeen heriotzak eta HIESa, malaria edo tuberkulosia bezalako gaitzak akabatzea, gaixotasun ez kutsagarriengatik heriotzak heren batean murriztea, drogen gehiegizko erabileraren prebentzioa eta tratamendua indartzea, trafiko istripuek eragindako heriotzak erdira murriztea, osasun zerbitzu sexual eta unibertsalak bermatzea, eta kutsadurak eragindako heriotzak murriztea. Lau neurri proposatzen dira: tabakoaren gaineko kontrola sustatzea, osasunarekin erlazionatutako inbertsioak handitzea, osasunaren finantzazioa handitzea eta osasun arriskuen gestioa hobetzea.

GIH-4: Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea eta denentzako behin-betiko ikasketa aukerak sustatzea: Hezkuntza egoki bat garapen sostengarrirako oinarri da, pobreziatik ateratzeko, disparekotasunak akabatzeko eta ahalduntzea posible izateko beharrezko elementua izanik (ICSU-ISSC, 2015). Azken urteotan lehen mailako hezkuntzan matrikulatze tasa nabarmen hobetu da garapen bideko herrialdeetan. Halere, Sahara azpiko Afrikan oraindik hobekuntza handiak dira beharrezkoak eta neska eta mutilen arteko disparekotasunak ere konpondu beharrekoak dira. Helburu hau lortzeko, honako jomugak proposatu dira: lehen eta bigarren mailako hezkuntza prozesuak bukatzea eta lehen haurtzarorako zerbitzuak bermatzea, gizon eta emakumeentzako goi mailako hezkuntzarako sarrera bermatzea, lana lortzeko kompetentziak dituzten pertsonen kopurua handitzea, genero disparekotasunak desagerraraztea hezkuntzaren alorrean, alfabetizazioa bermatzea eta garapen sostengarria sustatzeko beharrezko ezagutzak ematea. Era berean, hiru barnerapen neurri zehazten dira: hezkuntza-instalazio inklusiboen sorrera, garapen bideko

herrialdeentzako beka kopurua nabarmen handitzea eta garapen bideko herrialdeentzako irakasle kualifikatuen eskaintza handitzea.

3.3. OPAROTASUNA

Hazkunde ekonomiko inklusibo batek elkarbanatutako oparotasuna ekarri beharko luke pertsonen beharrak, jasangarritasuna eta ekitatea betetzen dituen heinean. Oinarrizko elementu honetan zazpigarren helburutik hamaikagarrenera sartzen dira.

GIH-7: Denentzako energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoari sarbidea bermatzea: Gure eguneroko bizitza zerbitzu energetiko fidagarrien menpe dago, trabarik gabe eta modu ekitatibo baten funtzionatu ahal izateko. Honen faltak garapenerako traba bat suposatzen du eta gaur egun munduko biztanleriaren bosten bat egoera honetan bizi da, nagusiki Afrika eta Asian. Gainera, beharrezkoa da energia hau jasangarria izatea, energia iturri ez berriztagarriek herritarren ongizatearentzako eta ingurumenarentzako ondorio kaltegarriak dakartzate eta. Beraz, gaur egungo eskema energetikoa aldatu beharko litzateke (Vessuri & de Montevideo, 2016). Hau lortzeko hiru jomuga eta bi barnerapen neurri proposatzen dira: alde batetik, zerbitzu energetiko eskuragarri, fidagarri eta modernoei sarbidea bermatzea, energia berriztagarriaren portzentajea handitzea eta efizientzia energetikoaren tasa bikoiztea; eta beste aldetik, energia garbia lortzeko beharrezko ikerketa eta teknologia aurrera eramateko nazioarteko kooperazioa handitzea eta garapen bideko herrialdeetan energia zerbitzu jasangarriak emateko azpiegitura hobetzea.

GIH-8: Garapen ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria, enplegu oso eta produktiboa eta ganorazko lana sustatzea denontzako: Pobreziaren desagerraraztea bakarrik da posible lanpostu egonkor eta ganorazkoen bitartez. Langabezia globala 170 milioitik 202 milioira handitu zen 2007tik 2012ra, gazteen presentzia nabarmena izanik zenbaki hauetan. Hau konpontzeko lanpostuak sortzea beharrezkoa da, baina ez nahikoa, askotan lan egitea ez baita nahiko izaten pobreziatik ateratzeko. Inklusibotasuna hazkunde ekonomiko iraunkorrerako oinarrizkoa da, hortaz, ez da egokia hazkunde hau BGP terminotan baino ez azaltzea: disparekotasunak eta aspektu sozial eta ingurumenekoak barneratzen dituen adierazle bat behar da (ICSU-ISSC, 2015). Helburu honen lorpenerako hamar jomuga zehazten dira: per capita hazkunde ekonomikoa mantentzea, produktibitate ekonomikoa handitzea, lan baldintzak hobetuko dituzten politikak sustatzea, hazkunde ekonomikoa eta ingurumenaren degradazioa aldentzea, denontzako ganorazko lana lortzea, gazteen langabezia tasa murriztea, bortxazko lana desagerrarazteko neurriak ezartzea, lan ingurune duinak sustatzea, turismo sostengarria bultzatzea eta finantza instituzioen gaitasuna hobetzea finantza zerbitzuak eskuragarriago bihurtzeko. Bi barnerapen neurri gehitu behar zaizkio aurrekoari: garapen bideko herrialdeen merkataritza sustatzea eta gazteen enplegu plan global bat sortzea.

GIH-9: Egokitzen diren azpiegiturak eraikitzea, industrializazio garatu eta jasangarria sustatzea eta berrikuntza sustatzea: Hazkunde ekonomikoa, giza

garapena eta aldaketa klimatikoaren aurkako ekimena azpiegituren inbertsioen menpe daude neurri handi batean, hauek jasangarri izatea oinarritzko bihurtzen duena (ICSU-ISSC, 2015). Oinarritzko azpiegitura hauek, esaterako, errepideak, ura edota komunikabideak, urriak izaten jarraitzen dute hainbat garapen bideko herrialdetan. Honetan bost jomuga proposatzen dira: azpiegitura fidagarri, jasangarri, egokikor eta kalitatezkoak eraikitzea; industrializazio jasangarri eta inklusiboa sustatzea; finantza zerbitzuak enpresa txikientzako eskuragarri bihurtzea; azpiegiturak berriztatzea eta industriak berregituratzea jasangarriago bihurtzeko; eta teknologia hobetzeko ikerketa zientifikoa handitzea. Hiru neurri proposatzen dira: azpiegitura sostengarriak eraikitzeko laguntzak ematea garapen bideko herrialdeei, herrialde hauetako teknologia, ikerketa eta berrikuntza sustatzea, eta komunikabideen eskuragarritasuna handitzea.

GIH-10: Herrialde barruko zein arteko disparekotasunak murriztea: Hainbat motatako disparekotasunak existitzen dira, bai herrialde barruan, bai herrialdeen artean. Esaterako, diru-sarrerari dagokienez, gaur egun munduko aberastasunaren %50 inguru %1 aberatsenaren eskuetan dago (Oxfam, 2015). Disparekotasun hauek epe luzeko garapen sozial eta ekonomikoa mehatxatzen dute, pobreziaren murrizpena kaltetzen dute eta pertsonen osotasun sentimendua desagerrarazten dute (GRSCPDG¹⁶, 2014). Ezinezkoa da garapen iraunkorra lortzea pertsonentzako aukerak, zerbitzuak eta bizitza hobe baterako aukerak galarazten badira. Helburu honen kasuan, zazpi jomuga ezarri dira: biztanleriaren %40 pobreenaren diru sarrerak handitzea, barnerapen sozial, ekonomiko eta politikoa sustatzea, aukera berdintasuna bermatzea, berdintasun handiagoa bermatuko duten politiken barnerapena, erakunde eta merkatuen legislazioa hobetzea, garapen bideko herrialdeen errepresentazioa handitzea nazioarteko erabakietan, eta ordenatutako migrazioa erraztea. Hiru dira helburu honen barnerapen neurriak: garapen bideko herrialdeei tratu berezi diferentziatua aplikatzea, garapenerako laguntza ofizialak sustatzea, eta emigranteen igorpenen transakzio kostuak murriztea.

GIH-11: Hiriak eta giza eraikuntzak inklusiboak, seguruak, moldagarriak eta jasangarriak izatea lortzea: Munduko biztanleriaren erdia hirietan bizi da eta zifra hau handitzen ari da. Horrek hirietako gaur egungo arazoak zaildu baino ez ditu egingo (Hamburger, 2016). Disparekotasunak hirien ardura nagusia dira, 800 milioi pertsona baino gehiago auzo marjinaletan bizi baitira. Haien energia kontsumo eta kutsadura mailak arduratzekoak dira: lurraren gainazalaren %3 baino ez dira eta energia kontsumoaren eta karbono igorpenen %70 inguru suposatzen dute. Gainera, hiri asko aldaketa klimatikoari kalteberak dira. Honengatik, zazpi jomuga proposatzen dira: etxebizitza eta oinarritzko zerbitzuen eskuragarritasuna bermatzea, garraiobide egokiak eskuragarri bihurtzea, urbanizazio inklusibo eta jasangarria areagotzea, ondare natural eta kulturala babesteko esfortzuak handitzea, hondamendiek eragindako heriotzak murriztea, hirien eragin ambiental negatiboa murriztea, eta zona berdeen sarrera unibertsala sustatzea. Hiru barnerapen neurri azaltzen dira: zona urbanoen arteko harreman sozial, ekonomiko eta ingurumenekoak sustatzea; inklusiboak, ekitatiboak eta

¹⁶ Grupo de Reflexión de la Sociedad Civil sobre las Perspectivas de Desarrollo Globales

jasangarriak diren hiri kopurua handitzea; eta eraikuntza iraunkorrek sortzeko laguntzak ematea garapen bideko herrialdeei.

3.4. PLANETA

Hurrengo oinarrizko elementua planeta da, gure ekosistemen babesa oinarrizkoa baita planetaren etorkizuna bermatzeko. Helburu guztietan dimentsio ambiental hau barneratu beharko litzatekeen arren, honetan seigarren helburua eta hamabigarrenetik hamabosgarrenera sartuko ditugu besterik ez.

GIH-6: Guztientzako ura eta osasunbidearen eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria bermatzea: Uraren, saneamenduaren eta higienearen eskuragarritasuna giza eskubide bat da, tamalez askotan gauzaten ez dena. Munduko biztanleriaren %13-ak ez dauka ur edangarria eskuragarri eskasia zein kutsaduragatik (Vessuri & de Montevideo, 2016). Baliabide honen kudeaketa iraunkorrek, hainbat gaixotasun eta heriotza saihestu ahalko lituzke. Gainera, ingurumena babesteko eta hazkunde ekonomikoa eragiteko neurri izan liteke. Sei jomuga proposatzen dira: ur edangarria arazoizko prezioan eta saneamendu eta higiene zerbitzuak eskuragarri bihurtzea, uraren kalitatea hobetzea, ur-baliabideen erabilpen efizientea handitzea, baliabide hauen kudeaketa integratua barneratzea, eta urarekin erlazionatutako ekosistemak babestea. Bestalde, bi dira aurkeztutako barnerapen neurriak: nazioarteko kooperazioa hobetzea garapen bideko herrialdeak urarekin erlazionatutako gaietan laguntzeko eta komunitate lokalen partaidetza sustatzea.

GIH-12: Kontsumo eta ekoizpen eredu jasangarriak bermatzea: Espero da hurrengo urteetan erdi-mailako jende kopura handitzea eta horrekin batera baliabide natural mugatuaren eskaria. Beharrezkoa da gaur egundo kontsumo eta ekoizpen ereduak aldatzea ingurumenean ondorio konponezinak ez eragiteko, eta honen erantzukizuna herrialde garatuena da neurri handi batean (GRSCPDG, 2014). Zortzi dira helburu honentzako ezarritako jomugak: Kontsumo eta Ekoizpen Iraunkorreko Modalitateen inguruko Programen Hamar Urterako Markoa aplikatzea, baliabide naturalen erabilera eta kudeaketa jasangarria, elikagaien alferrik galtzea erdira murriztea, hondakinen eta produktu kimikoen kudeaketa ekologikoki arrazionala lortzea, hondakin sorrera nabarmen murriztea, ekimen jasangarriak enpresetan sustatzea, jasangarritasunaren sustapen publikoa eta garapen iraunkorraren inguruko informazioa denentzako eskuragarri bihurtzea. Hiru barnerapen neurri adierazten dira: kontsumo eta ekoizpen jasangarriaren inguruko gaitasuna handitzen laguntzea garapen bideko herrialdeetan, garapen jasangarria gainbegiratzeko instrumentuak garatzea eta erregai fosilei emandako diru-laguntzak arrazionalizatzea.

GIH-13: Aldaketa klimatikoaren eta bere efektuen aurka egiteko neurriak hartzea: Aldaketa klimatikoa giza-jardueraren ondorio da eta gure bizimodua mehatxatzen du hainbat modutan, garapen jasangarriaren dimentsio guztientzako arrisku bat suposatuz (ICSU-ISSC, 2015). Pobrean dira kalteberenak honen aurrean, ez baitute baliabiderik honetarako prestatzeko ezta aurreikusteko (Wilkinson, 2016). Hau

kontrolatu ezean azken urteotako aurrerapenak galaraz daitezke, gaur egungo arazoak larriagotu eta ongizate orokorra zaildu. Hiru jomuga zehazten dira helburu honetan: klimari eta hondamendi naturalei lotutako egokitze gaitasuna hobetzea, aldaketa klimatikoaren aurka egiteko neurriak barneratzea eta aldaketa klimatikoaren inguruko hezkuntza hobetzea. Bi neurri planteatzen dira horrekin batera: Klimarentzako Fondo Berdea ahalik eta azkarren jartzea martxan hau kapitalizatuz eta aldaketa klimatikoaren kudeaketa gaitasuna handitzeko mekanismoak sustatzea garapen bideko herrialdeetan.

GIH-14: Ozeanoak, itsasoak eta garapen iraunkorrerako itsas-baliabideak kontserbatzea eta era jasangarrian erabiltzea: Ozeanoak oso ondasun baliotsuak dira hainbat arrazoiengatik: biodibertsitate handiari ematen diote ostatu, oinarrizko baliabidez hornitzen gaituzte eta kutsadura, pobrezia eta genero disparekotasunak murrizten laguntzen dute, besteak beste. Gainera, munduko biztanleriaren %75 kostaldean bizi da (ICSU-ISSC, 2015). Hala ere, ematen ari zaion tratua oso kaxkarra da, gero eta hondakin gehiago isurita eta gestio txarra bideratuta, inpaktu ambiental eta ekonomiko handiak dituena. Helburu honekin batera zazpi jomuga zehazten dira: itsas-kutsadura saihestea eta murriztea, ur ekosistemak era jasangarrian kudeatzea eta babestea, ozeanoen azidifikazioaren efektuak minimizatzea, arrantza arautzea eta mugatzea era eraginkorren, gutxienez kostala eta itsaso zonen %10 kontserbatzea, gehiegizko arrantza sustatzen duten diru laguntzak debekatzea, eta gutxien garatutako herrialdeek itsas-baliabideetatik lortutako mozkinak handitzea. Gainera, hiru neurri adierazten dira: itsasoaren inguruko ezagutzak handitzea, arrantzale txikiei itsas-baliabideak eskuragarriago bihurtzea, eta Itsasoaren Eskubideen inguruko Nazio Batuen Hitzarmena aplikatzea ozeanoen kontserbazioa hobetzeko.

GIH-15: Lur-ekosistemen erabilera jasangarria babestea, berrezartzea eta sustatzea, basoak era jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka egitea, lurraren degradazioa gelditzea eta lehengoratztea, eta biodibertsitate galera gelditzea: Helburu hau lortuko ez balitz, gainerakoak ere mehatxatuta egongo liriateke (ICSU-ISSC, 2015). Basoek gure planetaren gainazalaren ia heren bat suposatzen dute, edaten eta jaten duguna, arnasten dugun airea eta inguratzen gaituzten ekosistemak mantenduz. Lur-ekosistema hauen galtzeak biodibertsitate galeraz gain (Vessuri & de Montevideo, 2016), beste hainbat ondorio negatibo ekarriko lituzke, hala nola, pobreen egoera edota aldaketa klimatikoaren aurreko egokitze gaitasuna zailtzea. Bederatzi jomuga planteatzen dira: lur-ekosistemen erabilera jasangarria bermatzea, basoen kudeaketa jasangarria sustatzea, basamortutzearen eta lurraren degradazioaren aurka egitea, mendiko ekosistemen kontserbazioa bermatzea, habitat naturalen eta arriskuan dauden espezieen egoeraren degradazioa murrizteko neurriak hartzea, baliabide genetikoaren erabilpenetik lortutako irabazietan bidezko partaidetza sustatzea, ezkutuko ehizarekin eta babestuta dauden espezieen trafikoarekin amaitzea, espezie exotiko inbaditzaileen barnerapena saihesteko neurriak hartzea, eta ekosistemen eta biodibertsitatearen baloreak herrialdeen politika ezberdinetan integratzea. Honekin hiru barnerapen neurri proposatzen dira: biodibertsitate eta ekosistemen erabilpen jasangarri batera bideratutako finantza baliabideak handitzea, basoen gestio iraunkorra

finantzatzeko baliabideak handitzea garapen bideko herrialdeei honetarako pizgarriak eskainiz, eta ezkutuko ehizaren eta babestutako espezieen trafikoaren aurkako borrokaren aldeko elkartasuna handitzea.

3.5. JUSTIZIA

Garapen iraunkorrerako gobernantza egoki batek erakunde parte hartzaileak behar ditu, hiritarren eskubide eta askatasunak babesten dituen. Oinarrizko elementu hau hamaseigarren helburuan barneratzen da nabarmen.

GIH-16: Garapen iraunkorrerako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, justiziari sarbidea erraztea denentzako eta kontuak ematen dituzten erakunde eraginkor eta inklusiboak eraikitzea maila guztietan: GIHak lortu ahal izateko beharrezkoa da gizarteak baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak izatea, herritarren segurtasun sentimendua bermatuz edozein erlijio, genero edota etniarentzako. Horretarako, oinarrizkoa da erakunde egoki batzuk edukitzea, partaidetza eta giza eskubideak bermatzen dituztenak. Haien arazorik nagusienak ustelkeria eta herrialde barruko edo arteko gatazkak dira. Helburu honen lorpenerako, hamar jomuga zehazten dira: bortizkeria forma guztiak eta haien heriotza tasak murriztea, umeen aurkako bortizkeria forma oro akabatzea, zuzenbide estatua sustatzea justizia denentzako eskuragarri bihurtzeko, lapurtutako aktiboen itzulera bermatzea eta ekintza hau murriztea, ustelkeria eta eroskeria murriztea, erakunde eraginkor eta gardenak sortzea, erabaki inklusibo eta parte-hartzaileak bermatzea, garapen bideko herrialdeen partaidetza handitzea nazioarteko erakundeetan, denentzako identitate juridikoa eskuragarri bihurtzea, eta informazioa eskubidea eta oinarrizko askatasunak bermatzea.

3.6. ELKARLANA

Azkenik, herrialdeen arteko elkarlana oinarrizkoa da GIHak aurrera eramateko eta garapen jasangarria lortzeko, hamazazpigarren helburuan adierazten den bezala.

GIH-17: Inplementazio bideak indartzea eta Garapen Iraunkorrerako Batasun Mundiala indarberitzea: Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak izaera unibertsala daukan heinean, gobernu, gizarte zibil, akademiko eta eragile pribatu ororen partaidetza behar du garatu ahal izateko. Honetarako, azpi-puntu ezberdinetan banatutako hemeretzi jomuga proposatzen dira. Finantzei dagokienez, diru-sarrera fiskalak biltzeko gaitasuna hobetzeko barne baliabideen mugimenduak indartzea, garapen bideko herrialdeek garapenerako laguntza ofizialei lotutako egindako konpromisoak betetzearen alde egitea, finantza baliabide gehigarriak mugitzea garapen bideko herrialdeentzako, garapen bideko herrialdeak laguntzea zorraren epe luzeko jasangarritasuna lortzeko, eta gutxien garatutako herrialdeen aldeko inbertsioak sustatzea. Jomuga teknologiko honek planteatzen dira: berrikuntzaren inguruko elkarlana hobetzea, ekologikoki arrazionalak diren teknologien garapen eta transferentzia sustatzea, eta gutxien garatutako herrialdeentzako teknologia bankua martxan jartzea zientzia sorrera sustatzeko. Gainera, gaitasuna handitu nahi da garapen bideko herrialdeei tankera honetako ekimenak

bideratzeko nazioarteko laguntza emanez. Merkataritzari dagokionez hurrengo aipatzen da: unibertsala, arautua, irekia, ez diskriminatzailea eta ekitatiboa den merkataritza sistema aldeaniztuna sustatzea, garapen bideko herrialdeen esportazioak handitzea, eta gutxien garatutako herrialdeentzako merkatuei sarbide iraunkorra lortzea. Gai sistemikoei dagokienez zera aipatzen da: egonkortasun makroekonomikoa mantentzea, garapen iraunkorrerako politiken koherentzia hobetzea, herrialde bakoitzaren araudia errespetatzea pobrezia aurkako eta garapen jasangarrirako politiketan, Garapen Iraunkorrerako Munduko Batasuna hobetzea, eragile politiko ezberdinen arteko batasunak sustatzea, datuen eskuragarritasuna hobetzea garapen bideko herrialdeetan, eta garapen iraunkorraren aurrerapenak neurtzeko adierazleak sortzea.

4. GIHen EBALUAZIOA

Behin Garapenerako 2030 Agendaren oinarriak zehaztuta eta GIH bakoitzak barneratzen dituen gaiak jorratuta, orain arte agenda honi egindako analisi kritikoak ulertzeko informazio gehiago dugu eskuragarri. MGHeKin gertatu zen bezala, mota askotako irizpideak sortu dira helburu hauen inguruan, askotan kontraesanek daudenak. Analisi kritiko hauen bitartez, autore eta elkarte askok GIHen eraikuntza eta edukiaren hainbat faktore ebaluatu dituzte era ezberdinetan. Lanaren atal honetan, iritzi ugari bilduko dira eta, horretarako, lau azpiataletan banatuko da, irizpide ezberdinak ebaluatzen duten alorraren arabera sailkatuta: eraikuntza prozesua, izaera, eduki orokorra eta helburu eta jomugen analisia.

4.1. ERAIKUNTZA PROZESUA

Haien aurrekariekin konparatuta, GIHen eraikuntza prozesua oso modu berritzailean eman zen. MGHaK NBEko aditu talde batek sortu zituen bitartean, GIHen sorrera prozesu gardenago eta inklusiboago baten ondorio izan da, mota eta testuinguru askotariko aktoreen partaidetza sustatu duena (Beisheim, 2016; García et al., 2016; Hickel, 2015; Osés & Martínez, 2016; Yamey et al., 2014). Batzuen ustez, honek aukera ematen digu mundua herrialde ezberdinen batuketa bezala baino, elkarren menpeko diren, lotuta dauden eta asimetriko diren herrialde multzo bat bezala ikusteko (Osés & Martínez, 2016). Horrez gain, badira Agendak munduko arazoak konpontzeko aukerak eskaintzen dituela pentsatzen dutenak, garapena denentzako sustatuz eta ez bakarrik gutxi batzuentzat (GRSCPDG, 2014; Osés, 2016; Singh, 2016; Terama et al., 2016).

Eratze prozesu parte-hartzaile honi esker, herritar, enpresa eta erakundeek gaiaren inguruko ezagutza handiagoa edukitzea lortu da eta, zenbait autoreren ustez, partaide ezberdinen iritzia helburuetan integratzeko aukera gauzatu da, garrantzia emanik gizarteko talde ahulenen integrazioari prozesu honetan (Beisheim, 2016; Hamburger, 2016). Hauen aurka, badira guztiz kontrakoa argudiatzen dutenak. Haien esanetan, Agenda ez da sorrera prozesuan parte hartu zutenen arteko akordioa, baizik eta haien proposamen eta eskaeren agregatua (Osés, 2016; Osés & Martínez, 2016; Rísquez & Gil, 2016). Gainera, esaten dute eraikuntza prozesuan partaidetza sustatu zela egia izan arren, parte guztien ahotsak ez zirela modu berdinean entzun, enpresa handiak izanik botere handiena izan zutenak erabakiak hartzeko eta haien interesak ezartzeko, herritarren interesetatik nabarmen desbideratuz (Martínez, 2016; Medina, 2016; Osés & Martínez, 2016; Rísquez & Gil, 2016).

Izan ere, autore askok arrazoitzen dute agenda honen bitartez enpresa multinazionalen erantzukizunik gabeko boterea sustatu dela, 12.6 jomuga izanik haien portaera egokiaren inguruko “gomendioak” ematen dituen bakarra (De la Cruz, 2015; Hickel, 2015; Medina, 2016; Osés & Martínez, 2016; Rísquez & Gil, 2016). Haien esanetan, botere handipen hau zenbait arrazoi ezberdinengatik eman da. Hasteko, enpresa multinazional hauek NBEan daukaten partaidetza ekonomikoa nabarmen hasi

da azken urteotan. Gainera, gero eta aliantza gehiago daude NBEaren eta enpresa multinazional ezberdinen artean. Hala ere, ez da pentsatu behar botere eskualdaketa oso bat eman denik gobernuengandik enpresengana, difusio bat baizik, estatuekin zenbait kompetentzia elkarbanatuz garapenaren alorrean (Medina, 2016; Osés & Martínez, 2016).

4.2. IZAERA

Hainbat dira GIHen izaeraren inguruan kritikatu diren faktoreak, berriz ere aldeko eta kontrako irizpideak eraginda. MGHeekin alderatuta, GIHeek barneratu duten aspekturik berritzaileenetarikoa bat haien izaera unibertsala da, hau da, herrialde eta aktore ekonomiko guztiei eragitea, nazioarteko elkarlanera mugatu ordez, herrialdeetako politika publikoei ere eraginda (Osés, 2016). Esan beharra dago honen inguruko iritziak oso positiboak direla orokorrean. Batzuek esaten dute unibertsaltasun hau garrantzitsua dela gaur egungo munduan, disparekotasunetan eta jasangarritasun ezan oinarritutako eredu batean, herrialdeen eta pertsonen arteko elkarbizitzan ematen diren arazoak konpondu ahal izateko (Martínez, 2016). Gainera, GIHeek herrialde guztiei aplikatu behar izateak esan nahi du, zenbaiten iritziak, herrialde bat ere ez dagoela era egokian garatuta eta denek sustatu behar dutela garapen eredu alternatibo bat, Ipar-Hego binomio tradizionala zintzilik uzten duena (Osés & Martínez, 2016; Rísquez & Gil, 2016). Zehatzago izateko, unibertsaltasun ezberdindua da Agendan sustatzen dena, hots, helburu berdinak edukitzea denentzako, baina herrialde bakoitzaren testuinguruan barneratuta (Hamburger, 2016). Honi esker, herrialde bakoitzak jomuga ezberdinei ematen dien garrantzia egokitu dezake (ICSU-ISSC, 2015). Unibertsaltasunak helburuak herrialde industrializatueta irekitzea faktore berritzailea da ere MGHeekin alderatuta. GRSCPDG-k (2014) garrantzia ematen dio herrialde hauen barne politika aldatu beharri giza eskubideei, eragindako kanpo eraginei eta nazioarteko betebeharrei dagokienez. Hala ere, eztabaidatzen dute hau ez dela guztiz argia eta herrialde aberatsentzako helburu espezifikoen beharra aipatzen dute.

Aldaketak nabariak izan diren arren, GIHeek haien aurrekarien izaerarengandik faktore nagusi bat jaso dute oinordetzan: haien izaera boluntarioa. Aspektu hau oso kritikatu izan da adituen artean, ikuspuntu negatibo orokorra nagusituz iritzi guztietan. Juridikoki derrigorrezko ez izateak, 2030 Agendaren gobernantza guztiz mugatzen du garapen globalerako agenda bihurtu ahal izateko (García et al., 2016; Martínez, 2016; Osés & Martínez, 2016; Rísquez, 2016). Boluntaritasuna oso lotuta dago agendaren barnerapen neurrien ahultasunarekin, bat ere ez baita derrigorrezko, eta agenda politiko bihurtzeko ezintasunarekin (Osés & Martínez, 2016). Bi faktore hauek hurrengo atalean azalduko dira zehaztasun handiagoarekin.

Helburuen izaeraren inguruan askotan aipatzen den beste aspektu bat haien zehaztasun falta da, helburuak abstraktu eta ahul bihurtzen dituen (Beisheim, 2015; Brende & Høie, 2015; Hickel, 2015; Holden et al., 2016). Zehaztasun falta hau hainbat aspektutan da nabaria helburu eta jomuga guztietan zehar. Hasteko, ez dute ezartzen helburuen arteko lehentasunik, hots, ez dira adierazten lehen eta bigarren mailako

jomugak. Batzuek hau faktore negatibo bezala ikusten duten bitartean (Holden et al., 2016; Economist, 2015b), beste batzuek ezaugarri positibo bat dela uste dute, horri eta helburuen dimentsio aniztasunari esker momentura arte ohikoa zen jarrera *ekonomozentrikoa* alde batera uztea posible delako, ingurumen edo genero kontuak bigarren plano batean utzi gabe (Osés & Martínez, 2016; Rísquez & Gil, 2016). Honez gain, batzuek argudiatzen dute errepikapen ugari daudela jomugetan zehar, lortu beharreko jomugak eta hauek lortzeko neurriak nahasten direla, eta haien adierazpena ez dela argia hainbat kasutan (Beisheim, 2015; Brende & Høie, 2015; Holden et al., 2016; De la Cruz, 2015). Azkenik, helburu asko kuantifikatzeko eta neurtzeko zailtasunak aipatzen dira, garrantzitsua dena haien lorpena ziurtatzeko. Gabezia hau askotan justifikatzen da esanik herrialde bakoitza dela Agenda barneratzearen erantzule eta hau egingo duela bere gaitasun eta aukeren arabera (Alleyn et al., 2015; Economist, 2015c; Holden et al., 2016; ICSU-ISSC, 2015; Yamey et al., 2014). Bestalde, badira zehaztasun falta honen alde onak bilatzen dituztenak, Hák, Janoušková, & Moldan (2016) bezala, adierazpen abstraktu honek adierazleak aurkitzea errazten duela argudiatzen dutenak.

Helburuen konplexutasuna maiz aipatzen den gaia da ere bai. Paulson-ek (2015) honen inguruko iritzi kontrajarriak aurkezten dizkigu bere artikuluan. Alde batetik, badaude, Bill Gates-ek bezala, MGHak hobesten dituztenak sinpleagoak baitziren eta osasuna bezalako alorretan oinarrituta baitzeuden. Haien esanetan, sinpletasun honek garatzeko errazago egiten zituen. Bestalde, Amina Mohammed-en iritzikoak ditugu. Hauek eztabaidatzen dute helburuen konplexutasuna konpondu nahi diren arazo konplexuetatik eratorria dela. Ondorioz, haien ustez ez dauka zentzurik MGHak hobestea, arazoen sintomak baino ez baitituzte azaltzen eta ez haien kausak. Hortaz, pentsamendu basikoegia da agendaren eduki diren arazoak helburu sinple batzuekin konpondu ahal direla (Hickel, 2015).

Honekin lotuta, askotan argudiatzen den beste aspektu bat helburuen handizaletasuna da. Badira helburuak errealistak ez direla diotenak, gehiegi estaltzeko grina daukatela, gehiegi eta baita garestiegiak direlakoan (Economist, 2015b; Economist, 2015c; Hickel, 2015). Beste aldetik, badira helburu eta gai aniztasun hau defendatzen dutenak. Haien esanetan, Agendak beste modu batean alde batera utziko liratekeen garapenarekin lotutako zenbait faktore hartzen ditu kontutan, esaterako, ustelkeria, disparekotasunak edota gatazkak (Beisheim, 2016; De la Cruz, 2015; GRSCPDG 2014; Osés & Martínez, 2016; Rísquez & Gil, 2016). Halere, gobernantza indartzeko beharrari ere erreparatzen diote, ez baitute ikusten garapen arazo guzti hauei erabat aurre egiteko nahiko (Osés & Martínez, 2016).

4.3. EDUKI OROKORRA

Helburuen eduki orokorraz aritzerakoan, hainbat argitalpenen esanetan haien arazo nagusia kontraesankortasuna da (De la Cruz, 2015; Hak et al., 2016; Hickel, 2015; Martínez, 2016; Osés, 2016; Osés & Martínez, 2016). Zenbaiten ustez, agendaren dimentsio aniztasunak eragiten ditu kontraesan hauek, hau da, garapen iraunkorraren kontzeptuaren aplikazio ezegokiak (Martínez, 2016; Singh, 2016). Dena dela, dimentsio

aniztasun honen garrantzia askotan defendatzen da, honek gaien eta helburuen ikuspegi zabala eskaintzen duelako arazoak modu integralago batean erantzun ahal izateko (Beisheim, 2016; Le Blanc, 2015; Martínez, 2016). Hala ere, badira dimentsio aniztasun hau lortzen ez dela arrazoitzen dutenak, azkenean hazkunde ekonomikoak garrantzirik handiena jasotzen duelakoan “gizarte” eta “ingurumen” hitzak horren abizen bihurtuta (Osés & Martínez, 2016).

Hauxe bera da autore ugariaren ustez kontraesanen beste iturri bat: hazkunde ekonomikoa helburuen artean egotea. Holden-en (2016) hitzetan, hazkundera ezin da GIHetan barneratuta egon. Helburu hauek, Agendan bertan aitortzen den bezala, garapen iraunkorraren hiru dimentsioak bete beharko lituzkete: beharren asetzea, ekitatea eta muga naturalen errespetua. Horren guztiaren betetzeak, balio ekonomikoaren maximizazioa mugatzen du, ondorioz, hazkunde ekonomikoa ezinezko bihurtuz. Hickel-ek (2015), bere aldetik, argudiatzen du gero eta gehiago ari dela zabaltzen arduraren gure planetaren egoerarengatik, azken hamarkadetako eta gaur egungo praktika ekonomikoek eragindako kalteak aitortuz. Hala ere, GIHen programa hazkunde industrialaren eredu zaharrean oinarrituta dagoela dio, BPG¹⁷ hazkundera izanik azken batean garrantzirik handiena daukana, gizartean eta ingurumenean dituen ondorio kaltegarriak erreparatu barik (Osés & Martínez, 2016). Izan ere, zenbaiten ustez BPGa ez litzateke garapenaren adierazle gisa erabili behar (ICSU-ISSC, 2015). Hickel-en (2015) iritziz, planetaren arazoak konpontzeko neurri sinpleegiak aurkezten dira helburuetan. Honen adibide bezala, disparekotasunak murrizteko proposatutakoa azaltzen digu: aberatsen egoera mantentzea eta herrialde pobreen hazkundera sustatzea haien mailara heltzeko, hau jasagarria ez dela argi egon arren.

Honekin estuki lotuta dago GIHen edukiari egindako beste kritika gogor bat: egitura ekonomikoaren inguruko aldaketa beharri aipamen eza (Rísquez, 2016). Gai sistemikoak agendatik kanpo uzten dira neurri handi batean, gobernantza, zerga sistema edota merkataritza bezalako gaiak alde batera utzita (Osés, 2016). Honen inguruan egindako aipamen bakarra produkzio sistemaren ingurukoa da, aldaketa sakonak behar dituela esaterakoan (García et al. 2016). De la Cruz-ek (2015) dio mota honetako gaiak helburuetan barneratu ezean, disparekotasunak tinkatzen dituzten eta azken krisi ekonomikoak eragin dituzten merkataritza, finantza eta zerga akordio mundialak ez direla aldatuko.

Honegatik, besteak beste, 2030 Agenda ezin da programa politiko kontsideratu zenbait autoreren aburuz, agendaren izaera transformatzailea zalantzan utziz (Osés & Martínez, 2016). Haien ustez, gai sistemikoen barnerapen ezak garrantzia daukan arren, honetarako arrazoi nagusia proposatutako 43 barnerapen neurrien zehaztasun eta eraginkortasun falta da (Hak eta al, 2016; Martínez, 2016; Osés, 2016; Osés & Martínez, 2016). Batzuen hitzetan barnerapen neurri baino, epemugarik gabeko gomendioak baino ez dira (Domínguez, 2016). De la Cruz-en (2015) iritziz, hau konpontzeko lehenengo pausoa epe luzeko eta ertaineko jomugak zehaztea izan liteke.

¹⁷ Barne Produktu Gordina

Hauen irizpideari aurre eginez, negoziazioetan barnerapen neurrien diseinuak eduki duen garrantzia azpimarratzen dutenak daude (Beisheim, 2015). Osés-ek & Martínez-ek (2016) hau ezeztatzen ez badute ere, argudiatzen dute Addis Abeban barnerapen neurrien inguruko eztabaida eman ostean, agertutako hainbat proposamen azken akordiotik kanpo geratu zirela. Osés (2016) haratago doa eta barnerapen neurrien ahultasunaren kausa bilatzen saiatzen da. Aurretik azaldu dugun bezala, 2030 Agendaren eraikuntza prozesuan enpresa multinazionalak erabaki botere handia eduki zuten. Haiek dira, bere hitzetan, disparekotasun eta ekitaterik gabeko egoera honetara ekarri gaituzten aktoreak eta haien interesak argi daude: agenda onartu izanak ez du esan nahi hau barneratzeko prest daudenik. Horrexegatik eragin handiko barnerapen neurriak gelditu zituzten. Haien eragina argi dago, esaterako, aipatutako gai sistemikoen barnerapen ezan edota nazioarteko finantza erregulazioa, gardentasun fiskala, merkataritza akordioak eta negozio txikien sustapena ez aipatzean.

Barnerapen neurriekin batera, garrantzitsua da adierazle multzo egoki bat edukitzea helburuen barnerapenean egindako aurrerakuntzak neurtu ahal izateko. Batzuek dioten bezala, GIHen diseinuarekin izan da NBEak bere neurriak nahikoak ez zirela onartzen zuen lehen aldia eta BPGaz gain beste adierazle egokiago batzuk garatu behar zituela (Terama, 2016). Hala ere, zenbait autore kexatu dira dokumentuan adierazleen inguruan agertzen den informazio urriaz: adierazleen egokitasuna zalantzan jartzen da, ez da zehazten beharrezko adierazle kopurua eta haien testuingururik ez dago (Hak eta al., 2016). Horretaz gain, Rísquez-ek (2016) beharrezko datuak lortzeko zailtasunez hitz egiten du, ekonomia informala ez baita kontutan hartzen eta lortu beharreko maila egokiak ez baitira adierazten. Azkenik, aurretik esan bezala, hainbat helburu ez daude kuantifikatuta, jasangarritasuna bezalako zenbait kontzeptu neurtzeko zail suertatzen dira eta (Holden et al., 2016).

Hauetaz gain, beste zenbait muga adierazi dituzte autore ezberdinek helburuen eduki orokorraren inguruan. Zenbait argitalpenetan adierazten da GIHen testuinguruak ez duela zehazten zein talde sozialek daukan helburuak garatzeko erantzukizuna (ICSU-ISSC, 2015; Osés & Martínez, 2016). Honi erantzunez, Martínez-ek (2016) dio testuinguru konplexua duten nazioarteko akordio batean barneratutako demak diren heinean, maila askotako artikulazioa dela beharrezkoa hainbat eragile ekonomikoren gainean eraginez: gizarte zibila, gobernuak, eta abar. Honela bada, Beisheim-ek (2016) zailtasunak ikusten dizkio aktore guzti hauek martxan jartzeari. Honi lotuta, zenbait autorek nabarmentzen dute helburuen jarraipen metodoen adierazpena ahula dela, boluntarioa baita, eta haien inguruko adostasun falta agerian geratzen dela (Beisheim, 2016; De la Cruz, 2016). Bukatzeko, sustatu nahi den garapenaren finantzazio metodoak ere ez daude ondo zehaztuta, arrisku bat izanik hau finantzatzeko gai ez izatea (Beisheim, 2016; De la Cruz, 2015; García et al., 2016; Rísquez, 2016; Yamey et al., 2014).

4.4. HELBURU ETA JOMUGEN ANALISIA

GIHen eduki orokorra ebaluatzeaz gain, zenbait autorek helburu eta jomuga zehatzak analizatu dituzte. Izan ere, hainbat dimentsio eta gai espezifiko jorratzen dira helburu hauetan, inoiz baino garrantzi handiagoa emanik giza eskubideak, generoa, ingurunea edo berrikuntza bezalako gaiei (De la Cruz, 2015; Osés & Martínez, 2016; Yamey et al., 2014). Jomugei egindako kritika nagusia izan da haien %29a baino ez dagoela kontsideratuta ondo garatuta eta haien %17ak garapen nabarmena behar duela egoki izateko (Hak et al., 2016; ICSU-ISSC, 2015; Osés, 2016). Batzuek diote neurri handi batean iraganean bete gabeko promesen errepikapena baino ez direla, beste batzuek zehaztasun falta dela haien arazo nagusia barnerapen egokia posible izateko eta zenbaitek jomuga hauetan arazoaren interesen araberrako diagnosia egin dela, zentzugabeko estrategiak eraginda (ICSU-ISSC, 2015; GRSCPDG, 2014; Rísquez, 2016). Vessuri-k & de Montevideo-k (2016) onerako azpimarratzen dute helburuetan aspektu biofisiko, teknologiko eta sozioekonomikoak era argi batean daudela erlazionatuta. Haatik, beste zenbait autorek lotura gehiagoren falta nabarmentzen dute, bai jomugen artean, bai jadanik existitzen diren nazioarteko akordio eta politikekin (Hak et al., 2016, ICSU-ISSC, 2015; Le Blanc, 2015).

Lehen helburuarekin hasteko, pobrezia murriztearena, gehiago zehaztu beharra eta hizkeraren hobekuntza aipatzen dira emaitzak hobeto neurtu ahal izateko (ICSU-ISSC, 2015). Haratago joanda, pobreziaren arazoaren planteamendu okerra aipatzen du Rísquez-ek (2016). Horrek zenbati gabezia ekarri ditu. Lehenik, helburuaren handinahia aitortu arren, ezarritako jomugak nahikoak ez direla dio: zalantzan jartzen du 1,25\$/eguneko pobrezia atalasea egoki izatea, 1,30\$-ekin pobrezia egoera berdina dela esanik. Gainera, pobreziaren arazoa hazkunde ekonomikoaren bitartez konpondu nahi izatea kontraesankorra dela iruditzen zaio. Azkenik, muturreko pobreziaren kausen identifikazio falta azpimarratzen du De la Cruz-ek (2015).

Bigarren helburua, aurretik azaldu bezala, gosearen desagerrarazpenari eta nekazaritza jasangarriari dagokio. Honetan, bakarrik bi jomuga dagokizkio zuzenean gosearen kontuari eta hauek, gainerakoak bezala, era kontraesankorrean daude formulatuta zenbaiten aburuz (ICSU-ISSC, 2015). Honez gain, Fan & Polman-ek (2014) gosea eta azpielikadura 2025erako desagerraraztea proposatzen dute 2030rako egin ordez, Brasil edo Txina bezalako herrialdeen esperientzian oinarrituz.

Hainbat artikulutan eztabaidatu den helburu bat da hirugarrena, hau da, osasunaz hitz egiten duena. Kritika edo kezarik nagusia, MGHetatik GIHetara gai hau jorratzen duten helburu kopuruaren murrizpena da, hirutik bakarrera igaro baita, zenbaiten ustez bigarren planora bidaliz osasunaren kontua (Buse & Hawkes, 2015; Yamey et al., 2014). Zenbait erakundek herrialdeentzako zehazpen espezifikoaren falta, argitasun falta eta testuinguru eza kritikatzeko bitartean (ICSU-ISSC, 2015), Buse & Hawkes-ek (2015) jomugetan lortzen den osasunaren ikuspegi globala goraiatzeko dute, MGHen gabeziak konpontzen direlakoan. Azkenik, eztabaidak daude helburu honen eskuragarritasunari dagokionez: batzuek errealista ez dela dioten bitartean

(Domínguez, 2016; Yamey et al., 2014), beste batzuek kuantifikatutako jomugak lor daitezkeela diote, kuantifikatutako jomuga gehiagoren beharra aitortuz (Norheim et al., 2015).

Hezkuntzaren helburuari dagokionez, bere handizaletasuna azpimarratzen da era berean. Zenbait gabezia adierazten dituzte ICSU-ISSC erakundeek (2015): enfasi falta garapen jasangarriaren indartzean, helburu diren pertsonen zehaztaperen eza eta hezkuntza informalaen aipamen falta. Seigarren helburuan ere, ur eta osasunbidearen gaiak jorratzen dituen, arazo honek eragiten dituen pertsonen inguruko zehaztaperen falta nabaria aipatzen dute erakunde hauek, ez baita adierazten biztanleriaren zein ehuneko eragin nahi den. Gainera, eskualdeen arteko ezberdintasunak ez aipatzearen gabezia adierazten da, baita helburuan ematen den errepikakortasuna ere.

Bosgarren helburuak genero disparekotasunak aztertzen ditu. De la Cruz-ek (2015) gai honen inguruan egindako aurrerapenak goraiatzen ditu MGHeKin alderatuz. Hala ere, helburu hau ez dago guztiz ondo garatuta. Alde batetik, eraldaketa indibidual eta instituzionala bideratuko duten jomugen falta nabarmentzen da (ICSU-ISSC, 2015). Bestalde, hainbat zehaztaperen falta aipatzen da: epemuga; soldata, hezkuntza edo osasuna bezalako zehaztaperen sozioekonomikoak; eta aipamen eza askotan emakumeen eskubideak ez gauzatzeari (De la Cruz, 2015; ICSU-ISSC, 2015).

Zazpigarren eta bederatzigarren helburuei dagokienez, ICSU-ISSC erakundeek (2015) kuantifikazio eta zehaztasun falta nabarmentzen dute behin ere, hizkera argiagoa eta testuinguru beharra aipatuz. Zortzigarren helburuak, bere aldetik, eztabaida handia eragin du, hazkunde ekonomikoaren inguruko helburua baita. Erakunde hauek, beste hainbat autoreren artean, hazkundera zalantza jartzeaz gain, ekonomia informalaen barnerapen eza kritikatzeko dute eta kuantifikazio faltaren ñabardura sartzen dute berriz ere.

Disparekotasunei dagokien helburua, hamargarrena, agendatik berritzaileen artekoa da zalantzarik gabe. Rísquez-ek & Gil-ek (2016) sakontasunez jorratu dute gai hau haien artikuluan. Hasteko, aipatzen dute bakarrik egiten dela diru sarrera disparekotasunen analisia, kontuan hartu barik aberastasuna edo herrialdeen arteko disparekotasun ekonomikoak. Disparekotasunak konpontzeko neurri bezala herritarren %40 pobreenaren diru sarrerak handitzea proposatzen da aberatsen egoera mantenduz. Honen aurrean autore hauek muturretako pobreenak eta aberatsenak barneratzen ez direla adierazten dute, datu falta honekin benetako datuak eraldatzen direla eta handizaletasuna murrizten dela adieraziz. Azkenik, disparekotasunak desagerrarazteko proposatzen diren neurriak kritikatzeko dute. GIHetan liberalizazio komertzialaren eta kanpo inbertsio zuzenaren alde egiten den bitartean, autore hauen iritziz nahitaezkoa da botere egitura hauek aldatzea tratatutako arazoa konpondu ahal izateko. Bi autore hauetaz gain, beste zenbaitek ere egin dizkiote kritikak helburu honen planteamenduari. Alde batetik, kuantifikazio beharra aipatu da, jomuga bakarria baita neurgarri eta hau ere ez baita egokia ez duelako azaltzen ez neurri ez balio zehatzik (ICSU-ISSC, 2015; GRSCPDG, 2014). Bestalde, GRSCPDG-k (2014) erabilitako

hizkerak erroreak bidera ditzakeela dio: disparekotasunak murrizteko hazkunde ekonomiko konstantearen beharra aipatzen da, baina ez zaio erreferentziarik egiten aberastasun eta diru sarreren birbanaketa beharrari eta ez da aipatzen harremanik pobreenen eta aberatsenen diru sarreren artean.

Hamaikagarren helburuak hirien inguruan hitz egiten du. ICSU-ISSC erakundeek (2015) helburuaren dimentsio instituzionalaren falta aipatzen dute honetan. Hurrengo helburuak kontsumo eta ekoizpen ereduak jorratzen ditu. Iritzirik kritikoenek diote kapitalismoak bizirik dirauen bitartean helburu honek eskatzen duen ekoizpen kontrolatu hau ezinezkoa izango dela eta GIHeK ez dutela ezer zehazten eredu ekonomikoa aldatzearen inguruan. Ondorioz, baliabide naturalen esplotazioa eta ingurumenaren kaltetzea emango direla diote, jasangarritasunaren printzipioen guztiz aurka doana (Hamburger, 2016). GRSCPDG-k (2014) honetatik hurbil dagoen kritika bat egiten dio helburu honi: baliabideen efizientzia handitzeak ez dakar erabateko deskonexioa hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren kaltetzearen artean. Honetan ere, helburuaren formulazio ahula eta zehaztugabea aipatzen dute ICSU-ISSC erakundeek (2015), berriz ere ez baitira jomugak era egokian kuantifikatzen.

Hurrengo helburuan, aldaketa klimatikoaren arazoa jorratzen duena, egindako hobekuntza kualitatiboak goraiatzen dira, helburu hau ezin baita kuantifikatu (ICSU-ISSC, 2015). Izan ere, Hamburger-en (2016) hitzetan sostengarritasunaren inguruko eztabaidak eraldatzea lortu da. Zenbaitek kritikatzten dute aldaketa klimatikoak eragindako migrazioa ez aipatzea (De la Cruz, 2015; Wilkinson et al., 2016). Hamalagarren eta hamabosgarren helburuak estuki lotuta daude honekin, itsas- eta lur-ekosistemen babes sustatzen baitute. ICSU-ISSC erakundeek (2015) haien ahultasuna nabarmentzen dute, ez baitaude era argian adierazita eta ez daudelako kuantifikatuta. Horretaz gain, finantzatzeko neurrien falta adierazten dute.

Amaitzeko, hamasei eta hamazazpigarren helburuak ditugu. Hamaseigarrenak gizarte baketsu eta inklusiboen beharra aipatzen du, baina zehaztasun urriarekin. Izan ere, kuantifikatzeko zaila da helburu hau eta, ondorioz, datuak zailak dira lortzeko. Gainera, garapen jasangarriarekiko lotura falta aipatzen da (ICSU-ISSC, 2015). Hamazazpigarrenak, bere aldetik, barnerapen neurriak jorratzen ditu, aurreko azpiatalean biltzen direlarik hauen inguruko kritikak.

ONDORIOAK

Ikusi dugun bezala, herrialdeen garapena historian zehar hainbat autore eta erakunderen arreta deitu duen gaia izan da. Honek, herritarren bizi maila egoki bat sustatzeko hainbat eginkizun barneratzen ditu, hala nola, pobreziaren, gosearen edota disparekotasunen desagerrarazpena. Hala ere, azken urteotan garapenaren gaiari zenbait galdekizun gehitu zaizkio, edonolako garapena baliagarri izateari utziz. Aurretik hazkunde ekonomikoa eta herrialdeen garapena estuki lotuta ikusten ziren bitartean, orain harreman hau zalantzan jarri da ingurumena edo genero ikuspegia bezalako kontuak gehituz ekuazio honetara. Horrez gain, herrialdeen garapenak dakartzan arazoak gero eta gutxiago ari dira ikusten estatuaren erantzukizun indibidual bezala. Nazioarteko ardura bat bihurtu diren heinean, nazioz gaindiko hainbat ekimen ari dira sortzen gai hau tratatzeko eta arazo global hauek konpontzeko, garapen maila egoki eta orekatua lortu ahal izateko nazioarteko mailan.

Behar honi erantzuteko asmotan sortu ziren NBEaren Garapen Iraunkorrerako Helburuak, Milurteko Garapen Helburuen oinordeko direnak. Aurreko esperientzia honek hainbat muga aurkeztu zituen, haien artean nabarmenenak hurrengoak izanik: garapen bideko kontsideratutako herrialdeei baino ez izatea aplikagarri, NBEaren partaidetza eskusiboa helburuen sorreran eta gaur egungo arazo diren zenbait gairen barnerapen eza. Hala ere, ekarpen handi bat suposatuz zuten etorkizunerako irakaspen kalitatean, muga hauetaz konturatu ostean, hurrengo agendan haiek konpontzeko neurriak barneratuta. Horrela, GIHeK izaera unibertsala daukate, eraikuntza prozesu parte-hartzaile baten emaitza dira eta gaur egungo arazoei erantzun egokiagoa emateko neurriak barneratzen dituzte, disparekotasunak edota genero ikuspegia hobeto integratuz.

Honetaz ondorioztatu dezakegu GIHeK nazioarteko mailako garapen egoki eta orekatu hau lortzeko agenda optimo batera hurbilpena direla, MGHeK ekarpen aukerak gaituz. Aipatu den bezala, haien sorreratik haien aurrekariak baino haratago joateko esfortzua egin zuten haien eraikuntza prozesuan hainbat eragile ekonomiko ezberdinen partaidetza sustatuz. Horrez gain, MGHeK ez zituzten eta potentziala daukaten hiru printzipio barneratzen ditu helburu hauen izaerak: unibertsaltasuna, dimentsio aniztasuna eta integritasuna. Haien izaera unibertsalaren bitartez, bakarrik garapen bideko kontsideratutako herrialdeetara mugatzea konpondu da, munduko estatu, enpresa eta herritar guztien erantzukizun bihurtuz. Dimentsio aniztasunak eta integritasunak paper garrantzitsu bat jokatzen dute elkarrekin konbinatuta. Agenda honek garapen jasangarriaren hiru dimentsioak barneratzen ditu eta haien aldibereko lorpena sustatzen du, guztiak maila berean jarrita. Ondorioz, askotan joera den jarrera *ekonomozentrikoa* alde batera uzteko aukera eskaintzen du, beste modu batean ohiko eskematik kanpo geratuko liratekeen beste gai garrantzitsu batzuk barneratuz.

Alabaina, ezin daiteke esan agenda hau perfektua denik eta gaur egungo arazo guztiak konpontzeko neurria denik. MGHeK haien garaiari atera zitzaizkien bezala, hainbat irizpide kritiko sortu dira GIHeK inguruan. Ziurrenik gehien errepikatu den

kritika helburuen izaera boluntarioa da, agendaren aplikazio aukerak nabarmen mugatzen dituena. Hau estuki lotuta dago haien eraikuntza prozesuan emandako arazo nagusiari: prozesu parte-hartzaile bat izan arren, ahots guztiak ez ziren era berean entzun, enpresa multinazionalen irizpidea nagusi suertatuz. Enpresa hauek agenda sinatu zuten arren, helburuetan argi ikusi daiteke ez daudela prest haien jarduera ekonomikoa mugatzeko. Hortaz, haientzako egokiena helburuek izaera boluntarioa edukitzea da.

Honez gain, kritika asko oinarritu dira helburuen kontraesankortasunean, aurretik azaldu bezala. Izaera kontraesankor honen kausa nagusizat hazkunde ekonomikoaren barnerapena hartzen da. Askoren ustez, garapen jasangarriaren hiru dimentsioen barnerapen egokiak hazkunde ekonomikoa mugatzen du, bateraezin bihurtuz. Halere, hazkundera GIHetan bertan dago eta garrantzi nabarmena ematen zaio. Honekin lotura argi bat aurkezten du aipatutako beste kritika nagusi bat: gai sistemikoen barnerapen eza eta aipamen falta gaur egungo eredu ekonomikoak dituen gabeziei. Aztertutako zenbait autoreren ustez, gaur egungo botere banaketak agendak konpondu nahi dituen hainbat arazo tinkatzen ditu eta banaketa honen aldaketa sustatu ezean, oso zaila izango da proposatutako helburuak bete ahal izatea.

Azkenik, agendaren izaeraren eta edukiaren hainbat faktore kritikatu dira. Izaerari dagokionez, hainbat aldiz errepikatu da helburuak abstraktuak izatea, lortzeko zailak, handinahiegiak eta baita garestiegiak ere. Bestalde, edukian gabezia ugari identifikatu dira barnerapen neurriei, adierazleei, jarraipen metodoei eta finantzaketa neurriei dagokienez. Beste modu batean barneratuko ez liratekeen zenbait arazo azaltzen direla egia bada ere, honen guztiaren ondorioz, haientzako askori emandako trataera nahiko eskasa da.

Bada aipatzekoa GIHen bitartez lorpen aipagarriak egin direla ganorazko nazioarteko garapen agenda baten diseinuan. Hala ere, lanak frogatu duen bezala, oraindik gainditu beharreko zenbait muga ditu. Muga hauek, MGHen mugekin gertatu zen bezala, etorkizunerako ekimenak gidatzeko aukera ugari eskaintzen dituzte. Dena dela, ezin daiteke esan GIHen ekarpen bakarra hau denik. Helburu hauek indarrean egongo dira 2030. urtera arte eta, bien bitartean, oso garrantzitsua da haiei emandako interpretazioa, horrek agendaren baliagarritasuna zehaztuko baitu garapenerako tresna bezala. Helburuak aurrera eramateko eragile nagusiek, hau da, gobernuek, enpresek eta gizarte zibilak, ez lukete hau dokumentu itxi bat bezala ikusi behar, baizik eta agenda ireki bat bezala ikuspuntu politiko batetik. Horrela, helburuak politikoki eragin daitezkeen markotzat eduki beharko lirateke, haien izaera eraldatzailea bultzatzeko aukera eskaintzen duena. Hortaz, aipatutako eragileen garrantzia ez datza agenda honen barnerapenean dokumentu itxi bat balitz bezala, baizik eta haren interpretazioan bere izenburuak berak eskatzen duen izaera eraldatzailea bideratzeko eta barneratzen dituen gaur egungo arazoak konpontzeko, etorkizunerako gizarte jasangarri, inklusibo eta ekitatiboago bat posible izateko.

BIBLIOGRAFIA

- Alleyne, G., Beaglehole, R., & Bonita, R. (2015). Quantifying targets for the SDG health goal. *The Lancet*, 385(9964), 208-209.
- Beisheim, M. (2015). Reviewing the post-2015 sustainable development goals and partnerships: a proposal for a multi-level review at the high-level political forum.
- Beisheim, M. (2016). Reviewing the implementation of the 2030 Agenda for Sustainable Development: "early movers" can help maintain momentum.
- Berzosa, C. (2006). Economía del subdesarrollo y subdesarrollo de la economía. *Principios: Estudios de Economía Política*, (4), 5-22.
- Brende, B., & Høie, B. (2015). Towards evidence-based, quantitative Sustainable Development Goals for 2030. *The Lancet*, 385(9964), 206-208.
- Brundtland, G. H., & Khalid, M. (1987). Our common future. *New York*.
- Buse, K., & Hawkes, S. (2015). Health in the sustainable development goals: ready for a paradigm shift?. *Globalization and health*, 11(1), 13.
- Bustelo, P. (1992). *Economía del desarrollo: un análisis histórico*. Madrid, España: Editorial Complutense.
- Bustelo, P. (1998). *Teorías contemporáneas del desarrollo económico*. Madrid, España: Síntesis.
- Cantú, P. C. (2016). Los nuevos desafíos del desarrollo sustentable hacia 2030. *Ciencia UANL*, 19(80), 27-32.
- Chasek, P. S., Wagner, L. M., Leone, F., Lebeda, A. M., & Risse, N. (2016). Getting to 2030: Negotiating the Post-2015 Sustainable Development Agenda. *Review of European, Comparative & International Environmental Law*, 25(1), 5-14.
- De la Cruz, C. (2015). *Cambio, Poder y Justicia de Género en la Agenda 2030: Reflexiones para no perdernos en el camino* (No. 01-15). Universidad Complutense de Madrid, Instituto Complutense de Estudios Internacionales.
- DESA (2017). Process overview. United Nations Department of Social Affairs, Development Policy and Analysis Division. Last consulted: 23/05/2017. http://www.un.org/en/development/desa/policy/untaskteam_undf/process.shtml
- Dimand, R. W. (1988). The origins of the Keynesian revolution: the development of Keynes' theory of employment and output. Stanford University Press.
- Domínguez, R. (2016). La salud como derecho humano universal en la agenda de desarrollo post-2015: una mirada desde los bienes públicos globales a Colombia. *Agenda Internacional 2030: Perspectivas de la cooperación para el desarrollo*. Universidad de San Buenaventura, Colombia: Cartagena.

- Economist, The (2015a). The good, the bad and the hideous. *The Economist*, 26-03-2015.
- Economist, The (2015b). The 169 commandments. *The Economist*, 28-03-2015.
- Economist, The (2015c). Unsustainable goals. *The Economist*, 28-03-2015.
- Elliott, J. (2012). *An introduction to sustainable development*. Abingdon, United Kingdom: Routledge.
- Elson, D. & Balakrishnan, R. (2013). La Agenda de Desarrollo Post-2015 y la Realización de los Derechos de las Mujeres y la Justicia Social. *Dossier EsF 11: La Agenda de Desarrollo Post-2015: ¿Más de lo mismo o el principio de la transición?* (pp. 18-23). Economistas sin Fronteras.
- Fan, S., & Polman, P. (2014). *An ambitious development goal: Ending hunger and undernutrition by 2025*. Intl Food Policy Res Inst.
- FAO (2017). Trabajo estratégico de la FAO para contribuir a la erradicación del hambre y la malnutrición. *FAO 16431*.
- Galatsidas, A. (2015). Sustainable development goals: changing the world in 17 steps – interactive. 19th January 2015. *The Guardian*. Recovered from <https://www.theguardian.com/global-development/ng-interactive/2015/jan/19/sustainable-development-goals-changing-world-17-steps-interactive>
- García, A. G., Mora, J. C. R., Rodríguez, A. C., Linares, P., & Labriet, M. (2016). Las agendas de cambio climático y de desarrollo humano sostenible en las cumbres de París y Nueva York: una historia de dos ciudades. *Revista Icade. Revista de las Facultades de Derecho y Ciencias Económicas y Empresariales*, (97), 57-86.
- Griggs, D., Stafford-Smith, M., Gaffney, O., Rockström, J., Öhman, M. C., Shyamsundar, P., ... & Noble, I. (2013). Policy: Sustainable development goals for people and planet. *Nature*, 495(7441), 305-307.
- GRSCPDG (2014). Objetivos para los ricos. Indispensables para una agenda universal post-2015. *XII Informe Anual de la Plataforma 2015 y Más. Y después de 2015, ¿qué hacemos?* Plataforma 2015 y más, España: Madrid.
- Hák, T., Janoušková, S., & Moldan, B. (2016). Sustainable Development Goals: A need for relevant indicators. *Ecological Indicators*, 60, 565-573.
- Hamburger, A. A. (2016). Desarrollo sostenible en ciudades y asentamientos humanos. *Agenda Internacional 2030: Perspectivas de la cooperación para el desarrollo*. Universidad de San Buenaventura, Colombia: Cartagena.
- Hickel, J. (2015). The Problem with Saving the World. *Jacobin Magazine*, 08-08-2015. Recovered from <https://www.jacobinmag.com/2015/08/global-poverty-climate-change-sdgs/>

- Hirschman, A. O. (1980). Auge y ocaso de la teoría económica del desarrollo. *El trimestre económico*, 47(188 (4), 1055-1077.
- Holden, E., Linnerud, K., & Banister, D. (2016). The Imperatives of Sustainable Development. *Sustainable Development*.
- ICSU-ISSC (2015). *Review of targets for the Sustainable Development Goals: The Science Perspective*. Paris: ICSU.
- IUCN (1980). *World Conservation Strategy*. International Union of Conservation of Nature and Natural Resources, UNEP. Geneva.
- Joshi, D. K., Hughes, B. B., & Sisk, T. D. (2015). Improving Governance for the Post-2015 Sustainable Development Goals: Scenario Forecasting the Next 50 years. *World Development*, 70, 286-302.
- Ki-Moon, B. (2014). The road to dignity by 2030: ending poverty, transforming all lives and protecting the planet. Synthesis report of the Secretary-General on the post-2015 sustainable development agenda. *NY: United Nations*, 4.
- Le Blanc, D. (2015). Towards integration at last? The sustainable development goals as a network of targets. *Sustainable Development*, 23(3), 176-187.
- Martens, J. (2013). Hacia un Marco de Objetivos Universales de Sostenibilidad como parte de una Agenda Post-2015. *Dossier EsF 11: La Agenda de Desarrollo Post-2015: ¿Más de lo mismo o el principio de la transición? (pp. 6-11)* Economistas sin Fronteras.
- Martínez, I. M. (2016). Informe de investigación “La cooperación vasca en el nuevo contexto internacional del desarrollo: análisis y propuestas en relación al marco de instrumentos, los agentes y los espacios de participación y diálogo”. Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.
- Meadows, D. H., Meadows, D. H., Randers, J., & Behrens III, W. W. (1972). *The limits to growth: a report to the club of Rome (1972)*. New York, USA: Universe Books.
- Medina, J. (2016). ¿Es la Agenda 2030 una Agenda Neoliberal? *Dossier 22: Otra economía está en marcha III (pp. 7-9)*. Economistas sin Fronteras.
- Nelson, P. J. (2007). Human rights, the Millennium Development Goals, and the future of development cooperation. *World development*, 35(12), 2041-2055.
- Norheim, O. F., Jha, P., Admasu, K., Godal, T., Hum, R. J., Kruk, M. E., ... & Suraweera, W. (2015). Avoiding 40% of the premature deaths in each country, 2010-30: review of national mortality trends to help quantify the UN Sustainable Development Goal for health. *The Lancet*, 385(9964), 239-252.
- Osés, P. J. M. (2015). A Post-MDG Roadmap Based on Learnings from Experience. *Papeles 2015 y Más*, n°28. Plataforma 2015 y más.

- Osés, P. J. M. (2016). La Agenda 2030: Contradicciones, transformaciones y resistencias. *Boletín del Centro de Documentación Hegoa*, (49), 1-12.
- Osés, P. J. M. & Martínez, I. M. (2016). La Agenda 2030: ¿Cambiar el mundo sin cambiar la distribución del poder? *Lan harremanak: Revista de Relaciones Laborales*, (33), 73-102.
- Oxfam (2015). *Riqueza: Tenerlo todo y querer más*. Informe temático de Oxfam, enero 2015.
- OWG (2014). Open Working Group proposal for sustainable development goals. *New York*.
- Panel, H. L. (2013). The Report of the High-Level Panel of Eminent Persons on the Post-2015 Development Agenda.
- Paul, B. D. (2008). A history of the concept of sustainable development: literature review. *The Annals of the University of Oradea*, 17(2), 581.
- Paulson, T (2015). Gates Foundation rallies the troops to attack UN development goals. *Humanosphere*, 06-05-2015. Recovered from <http://www.humanosphere.org/world-politics/2015/05/gates-foundation-rallies-the-troops-to-attack-un-development-goals/>
- Ramos, J. M. L. (2016). Medición multidimensional de la pobreza: estado de la cuestión y aplicación al ODS-1. *Revista Internacional de Cooperación y Desarrollo*, 3(1), 4-34. Recuperado de <http://revistas.usb.edu.co/index.php/Cooperacion/article/view/2540/2301>
- Rísquez, M. (2016). Agenda 2030: Objetivos de Desarrollo Sostenible, Un Balance Crítico. Economistas sin Fronteras, documento interno.
- Rísquez, M. & Gil, M. L. (2016). La desigualdad económica en el marco de la Agenda 2030 de desarrollo: Una asignatura pendiente.
- Rueda, E. C., & Zenteno, M. D. P. E. (2016). De los Objetivos del Milenio 2015 a la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible. *Atenas*, 4(36), 20-36.
- Sachs, J. D. (2012). From millennium development goals to sustainable development goals. *The Lancet*, 379(9832), 2206-2211.
- SDSN (2013): *An Agenda for Sustainable Development. Report for the UN Secretary-General*, New York.
- Singh, G. (2016). Sustainable Development Goals 2016-2030: Easier Stated Than Achieved. *Journal of Innovation for Inclusive Development*, vol. 1.
- Sutcliffe, B. (2014). Desarrollo, subdesarrollo y medio ambiente. *Cuadernos de Trabajo Hegoa*, (3).

- Terama, E., Milligan, B., Jiménez-Aybar, R., Mace, G. M., & Ekins, P. (2016). Accounting for the environment as an economic asset: global progress and realizing the 2030 Agenda for Sustainable Development. *Sustainability Science*, 11(6), 945-950.
- UN General Assembly (1972). *Declaration of the United Nations Conference on the Human Environment*. Stockholm: United Nations. Recovered from <http://www.un-documents.net/unchedec.htm>
- UN General Assembly (2000). United Nations millennium declaration. *United Nations General Assembly*.
- UN General Assembly (2010). Keeping the promise: united to achieve the Millennium Development Goals. *New York: United Nations*.
- UN General Assembly (2012). The future we want. *Resolution*, 66, 288.
- UN General Assembly (2013a). A life of dignity for all: accelerating process towards the Millennium Development Goals and advancing the United Nations development agenda beyond 2015. *A Report of the Secretary-General*. New York: United Nations.
- UN General Assembly (2015). Transforming our world: the 2030 Agenda for Sustainable Development. *New York: United Nations*.
- UN General Assembly (2016). Global Sustainable Development Report 2016. Department of Economic and Social Affairs. *New York: United Nations*.
- Unceta, K. (2014). Desarrollo alternativo, alternativas al desarrollo y buen vivir: elementos para el debate. *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, (128), 29-38.
- Unceta, K. (2015). *Más allá del crecimiento. Debates sobre desarrollo y posdesarrollo*. Buenos Aires, Argentina: Mardulce.
- Unceta, K. & Gutiérrez-Goiria, J. (2016). ¿Se hace camino al andar? Las estrategias de desarrollo, los ODM y la paradoja china. *Revista de Economía Mundial n°44* (59-76).
- Vessuri, H., & de Montevideo, U. O. (2016). La ciencia para el desarrollo sostenible (Agenda 2030).
- Wilkinson, E., Schipper, L., Simonet, C., & Kubik, Z. (2016). Climate change, migration and the 2030 Agenda for Sustainable Development.
- Yamey, G., Shretta, R., & Binka, F. N. (2014). The 2030 sustainable development goal for health. *BMJ*, 349, g5295.

WEBGRAFIA

- Milurteko Garapen Helburuak:

<http://www.un.org/millenniumgoals/>

- Garapen Iraunkorrerako Helburuak:

<http://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>